

Barrena

OSASUN MENTALA

Elgoibarko haurren eta nerabeen %20k osasun mentaleko diagnostiko klinikoren bat dute edo izan dute

Elgoibarko nerabeen ongizate emozionalaren diagnostikoa osatu dute Udalak, Elhuyar elkarteak eta Danobatgroup kooperatibak, 'Zurrumbiloa' proiektuaren barruan / 4-5

EKONOMIA

"Ezagutza industrial eta berrikuntzarako irrika badaude" / 2

Amagoia Paskual Eiguren
Debegesako kudeatzailea



ASIER ORBEA OSTOLAZA

INGURUMENA

Zaldibarko zabortegiko hondamendiaren erantzuleak zeintzuk izan ziren argitzeko eskatu dute / 6

KULTURA

Zazpi film laburrekin osatu dute 23. Laburbira bilduma, eta martxoaren 1ean hasiko da / 25



Inauterien atariko kantu eskea, makila kolpeka

Kandelario, San Blas eta Santa Ageda ospatu dituzte bailaran asteen, eta gaur, bihar eta etzi ere izango dira kantu eta eske errondak / 26-27

Mendaroko eskola-umeen santa eskea

AINARA ARGOTIA

EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOA

Kalitatezko
Hezkuntza

euskadi.eus/hezkuntza

AURREMATRIKULA Otsailaren 2tik 13ra

EKONOMIA

"Eskualdean badaude ibilbide industrial handia, ezagutza eta berrikuntzarako irrika"

AMAGOIA PASKUAL FIGUREN DEBEGESAKO KUDEATZAILE BERRIA

Eskualdean kalitatezko enplegua eta ongizatea bultzatzen laguntzeko nahiarekin, gogotsu ekin dio ibilbide berriari Amagoia Paskualek

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA Amagoia Paskual Figuren (Lekeitio, 1972) Debegesako (Debabarreneko Garapen Agentzia) kudeatzailea da 2025eko amaiera ezker. 26 urteko ibilbidea du makina-erremintaren esparruan. Enpresaria ofizioz, besteak beste, ADDILAN enpresako zuzendari nagusia izan da, Maher Holding-eko negozio berrien arloko arduraduna eta Euskadi Avanza 2019 eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzaren zuzendaritza batzordeko kide. Gainera, haren lana aitortzen duten hainbat sari jaso ditu; esaterako, Begoñazpi Ikastolaren Gazte Role Model, Daniel Innerarity filosofoarekin batera.

Nplatan animatu zara Debegesara? Hiru arrazoiengatik, batik bat. Batetik, Debegesak duen erronkarengatik: eskualdean garapen jasangarria sustatzea. Helburu hori hainbat abiapuntutatik lantzen da, ez bakarrik enpresa eta berrikuntza arlotik, baita hirigintzatik ere; etxeak birgaitzetik, adibidez. Noski, enplegu eta berrikuntza sozialetik ere bai, batetik, enplegua gure eskualdean ondo zaindu beharrekoa delako, eta, bestetik, gizartea asko eraldatzen dabilelako. Hori guztia, energia trantsizioaren bidetik, turismoaren bidetik... Debegesak ematen du aukera garapen jasangarri hori orokortasun handi batean lantzeko. Bigarren arrazoia da Debegesaren ibilbidea. Aurten 40 urte bete ditu. Estatuan eratu zen lehenetariko garapen agentzia da, eta erreferente bat da. Horrek beti animatzen du. Eta hirugarren arrazoia da taldea. Askok eta oso ondo ezagutzen du bailara, ezagutzen du ze beharrian dituen, bertako agenteak, hurbiltasun handia du hainbat agenterekiko, elkarlanean lan egiteko ohitura

du eta lanerako gogo handia ere badu. Beraz, 40 urtez egindako lanarekin segitzeko gogotsu nator. Laburbilduz, hiru arrazoik animatu naute: garapen jasangarria sustatzea, Debegesaren ibilbideak eta taldearen ezagutzak eta motibazioak.

Debabarrena eta bertako industria-mundua ezaguna egingo zaiuzula pentsatzen dut.

Badaramatzat 25-26 urte makina-erremintara lotuta, eta Debabarrena industria horretan erreferente bat da, ez bakarrik fabrikatzaile garrantzitsu asko gure eskualdean daudelako, baizik eta, baita ere, horren inguruan eratu den industriarengatik: mekanizatuak, enpresa laguntzaileak... Horietako industria asko ezagutzen ditut, eta, gainera, nire aurreko ibilbideko zereginetako bat izan zen aukera industrialak lantzea eta topatzea. Beraz, hau ondo ezagutzen dudana ingurunea da.

Debegesako kudeatzaile moduan, joan den astean turismoaren nazioarteko Fitur azokara joatea egokitu zitzaizun. Zelan joan zen?

Egun bi egon ginen. Oso ondo joan zen. Batetik, aukera izan genuen gure Geoparkearen tour birtuala aurkezteko, Deba-Mutriku-Zumaia artekoa. Europar Batasunaren Next Generation fondoaren bitartez finantzaturako proiektuaren barruan dago ekimen hori. Euskadiko standarden barruan, berriz, euskal kostaldearen txokoan Debabarrenak duen eskaintza turistikoa aurkezteko aukera ere izan genuen, baita proiektu berrietan beste pauso bat emateko ere. Adibidez, Debabarrena Gourmet egitasmoaren barruan, pausoak eman genituen hura Frantziara zabaltzeko dauden aukerak aztertzeke, eta Arabako Errioxako markaren baitan beste lankide-

tza bat hasi genuen. Bestetik, gure antzerako herrien eta eskualdeen eskaintza turistikoa ikusteko aukera ere izan genuen; besteak beste, Asturias, Nafarroa eta Galizia. Besteak egiten dutena ikustea oso garrantzitsua da. Eta, azkenik, Debegesako Turismo Sailean dauden agenteek besteekin hitz egin, eta, nire kasuan, elkar ezagutzeko aukera ere izan nuen. Laburbilduz, aukera izan genuen guk zer egiten dugun komunikatzeko, bestelako proiektuetan elkarkidetza berriak nola sortu lantzeko, inguruan zer eskaintzen den ikusteko eta turismo arloko agenteak ezagutzeko.

Garapen agentziak proiektu mardulak ditu esku artean, epe ertain-motzera begira, gainera. Zein izango da zuren lehen egitekoa?

Proiektu asko ditugu mahai gainean, departamentu guztietan. Gure helburua garapen jasangarria sustatzea da, eta hori arlo askotatik landu behar da, transbertsala da. Nire ibilbidea kontuan izanda, lehen palanka edo oinarria aktibitate ekonomiko jasangarria sustatzeko dagoen edozein proiektu izango da. Azken batean, jar-

"Estatuan eratu zen lehenetariko garapen agentzia da Debegesa, erreferente bat da"

"Kalitatezko enplegua sortu behar dugu, horrek bizi-kalitate ona sortzen baitu"



Amagoia Paskual Figuren, Debegesan. AXIER ORBEA OSTOLAZA

duera ekonomikoak sortzen du kalitatezko enplegua, horrek sortzen du bizi-kalitate ona; era berean, aktibitateak aktibitate gehiago sortzen du... Errubera bat da, eta bailaran bizi-kalitatea hobetzen da horrekin guztiarekin. Baina hori dena aktibatzeke, hirigintzatik lan handia egin behar da, industrialdeak ez badaude egokituta gaitza izango baita jarduera berriak sortzea edo mantentzea; edo bizilagunen auzoetako kalitatea jaisten bada, askoz ere gaitzagoa izango baita bizilagunak bertan mantendu eta jendea erakartzea. Enplegua ere landu behar da. Eta gizartea asko eraldatzen ari da, eta horrek ere erronka asko ditu. Gauza konkretu modura, berriz, badaude enpesei zuzendutako proiektu zehatzak digitalizazioa bultzatzeko Foru Aldundiarekin batera, edo proiektu pilotua ibilbide teknologikoa zelan abiatu laguntzeko, BPTD elkartearekin lanean segituko dugu, Hirigintzan 2026rako nahi duguna da birgaitze bulegoak ematen duen informazioa herritarrei hurre-ratu, turismoan Next funtsen proiektua amaitu nahi dugu, aurten martxan jarriko da Dolmenen Ibilbideko erakusketa eta abar. Gauza asko dira, baina guztiak daude bideratuta helburu berera.

Debabarrean, Eibarrek eta Sor-luzek Gipuzkoako langabezia tasarik handienetakoa dute urtero-urtero; gai horri propio eutsiko zaio?

Bai. Debabarrenak, zoritxarrez, langabezia tasa handia dauka. Gehienbat, Eibar eta Sorluze dira handiena dutenak. Denok arduratzen gaitu horrek. Horri aurre egiteko, dagoeneko martxan dauden proiektu birekin jarraituko dugu: *Hazilan+* pertsona kualifikatuei zuzendutako programarekin eta *Elkarrekin* programarekin. Azken hori da baztertze arriskuan dauden pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko proiektua. Gure eskualdean baztertze arriskuan dauden bizilagunen kopuruak zaintza eskatzen du. *ElkarEkin* programaren bitartez, eskaintzen zaie formazio itinerarioa eta lan-esparrura sartzen laguntzeko ibilbideak. Bestalde, 2025a ezker, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Sailean berrikuntza bat dago, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Lege berrian oinarrituta. Lege horren helburua da herri bakoitzak bere tokiko plana eta bere errealtateari lotuta dagoen plana diseinatzeko laguntza izatea. Berez, legeak dio 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek derrigor egin behar dutela plana eta txikiagokoek aukeran dutela. Eskema oso berria da. Orain arte, enplegua sustatzeko

programak mugatzaile samarrak ziren, akaso; lege horrekin aukera eman nahi da udalerriek/eskualdeek nor bere ezaugarrien eta beharrezan araberako planak gara ditzan. Debegesatik ikusten duguna da hori ez dela udal bakar baten arazoa, baizik eta eskualde ikuspegitik landu beharrekoa dela. Eta horretan hasiko gara. Eskualdean, adibidez, Eibarrek egin du bere lana eta plan pilotu batean hasi da. Horrez aparte, badirudi 2026an derrigortuta dauden udalerriak uda igaro eta gero hasiko direla planak egiten. Gu geu oso konbentzitu gaude eskualdeko apustua izan behar duela, eskualdeko ikuspuntua izan behar duela, eta, posible den heinean, horretan saiatuko gara. Adibidez, Sorluzen lana behar duen pertsona batek egin dezake lan Eibarren, Elgoibarren... Helburua da kalitatezko lana sortzea. Hori izango da lan-ildo garrantzitsu bat guretzat.

Izan ere, urteotan EAEko hiru hiriburuek eskualdeko baliabide asko zurrupatu dituzte, ezta?

Debabarrena hiru hiriburuetatik gertu dago, erdian; hori oso ondo dago, baina, era berean,



Amagoia Paskual, Debegesako bestelako lankide batzuekin. AXIER ORBEA OSTOLAZA

zailtasunak ere jartzen ditu talentuak, inbertsioak... gurea ekartzeko edo gurean mantentzeko. Horregatik, azpiegiturak, hirigintza egokia eta gizarte ongizatea eskualdean bertan sustatu behar dira, in-

bertsioa etortzeko, talentua erretentitzeko eta erakartzeko eta, oro har, eskualde erakargarri izaten segitzeko. Lana garrantzitsua da, baina lanetik kanpo dagoen bizitza ere bai, eta ildo horretan ere eskualde

"Enplegu lege berriak ahalbidetzen du udal bakoitzak tokiko planak diseinatzea"

"Debabarreneko bizilagunak harro eta gustura daude norbere jaioterriarekin"

erakargarria izaten jarraitu gura dugu.

Orain erakargarria dela uste duzu?

Debabarreneko bizilagunak harro eta gustura daude norbere jaioterriarekin, errotze sentimendu oso fuertea dago. Guk ziurtatu behar dugu bizilagunek horren alde apustu egitea, eta bizi-planteamendua Debabarrenean egitea erabaki dezatela; eta Debabarrenekoa ez denari ere irriki hori sortzeko kapaz bagara, ba, oso ondo.

Europako ekonomia krisian sartuta egoteak zenbateraino eragin dio eskualdeko industriari?

Krisia leku guztietan igartzen da, baita hemen ere. Batez ere, azkenaldiko ziurgabetasunak gaitzago egiten du inbertsio berriak martxan jartzea. Aldi berean, belaunaldiarteko erreleboa gertatzen ari da tailer eta enpresa askotan, eta horri aurre egiteko bidean ez du batere errazten kanpoko musika eze-gonkortasuna izateak. Beraz, krisiak eragina dauka inbertsioetan eta erreleboa egitean. Baina gaitza izateak ez du esan nahi ez dela egiten. Gure bailara oso ondo kokatuta dago enpresek I+Gn (Ikerketa eta Ga-

rapena) inbertitzen duten adierazlean, zenbat enplegu bideratzen duten I+G-ra... Gipuzkoarekin alderatuta aurrerago gaude. Hala ere, ezin gara erlaxatu. Krisia eragiten ari da eta eze-gonkortasunak ere eragiten du. Automozio enpresek, adibidez, erronka handia dute, baina ez hemen bakarrik, Europa osoan.

Zein indargune ikusten diozu eskualdeari?

I+G da indargune bat. Beste bat da ibilbide garrantzitsua duten enpresa industrialak ja badaudela hemen eta hemen mantentzen direla. Beraz, badago negozio eta industria ezagutza eta baita ere berrikuntzarako irrika. Horrekin batera, badugu ibilbide bat erakusten duena oso ekintzaile izan garela. Jendea formatuta dago, ezagutza maila handia dago. Ez bakarrik formazio unibertsitarioan; formazio profesionalen ere ezagutza maila handia dago. Beraz, eskualdean badago profila ezagutza duena, ibilbidea ere baduena... Badaude oinarriak; guk egin behar duguna da hori aprobe-txatu eta horretan oinarritu gauza berriak sortzeko.




MIKEL INIGUEZ
DENTAL STUDIO

“ KIRURGIA GIDATUAK AZKEN PUNTAKO TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEN DU. PAZIENTEAREN EBAKUNTZA AURREZ ETA ZEHAZTASUN HANDIZ PLANIFIKATUZ. ”

ABANTAILAK:

- HORTZAK 24 ORDUTAN JARTZEKO AUKERA EMATEN DU
- INPLANTEEN KOKAPEN MILIMETRIKOA BERMATZEN DU.
- TRATAMENDU MINIMOKI INBADITZAILEA.
- ERREKUPERAZIO AZKARRAGOA.
- AZKEN EMAITZAREN AURREIKUSPEN DIGITALA.
- DENBORA KIRURGIKOAREN MURRIZKETA.



RPS:81/25

WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

616 68 03 11

OSASUN MENTALA

Osasun mentaleko patologiaak eta nahasmenduak ugaritu egin dira Elgoibarko nerabeen artean

Nerabeen ongizate emozionalaren diagnostikoa osatu dute Udalak, Elhuyarrek eta Danobatgroupek, 'Zurrumbiloa' proiektuaren baitan

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Elgoibarko nerabeen ongizate emozionalari buruz egindako azterketaren emaitzak aurkeztu zituen asteazkenean Udalak. *Zurrumbiloa* proiektuaren baitan egin dute diagnostikoa, Elhuyar erakundearekin eta Danobatgroupekin elkarlanean, eta emaitza argigarriak bezain kezagarriak azaleratu ditu: bate-tik, joera orokorra errepikatzen dela Elgoibarren, eta herriko nerabeen artean ere ugaritu egin direla osasun mentaleko patologiaak eta nahasmenduak, 0-20 urte bitarteko haurren eta nerabeen %20,3k osasun mentaleko diagnostiko klinikoren bat dutelako edo izan dutelako; eta, bestetik, psikofarmakoen kontsumoak goranzko joera nabarmena izan duela azken hamarkadan. Gaur, nerabeen %9,5ek hartzen dituzte psiko-farmakoak. Farmakoen artean, antiololitikoak eta psikoestimulatzaileak kontsumitzen dira gehien. Datu bat egoeraren larriaz jabetzeko: hamar urtean, antiololitikoen preskripzioa sei aldiz hazi da.

Nolanahi ere, azterketa horrek erakutsi duen irudiaren zati bat da hori, baduelako, zorionez, beste alde bat ere, diagnostikoak erakutsi baitu Elgoibarrek "oso ekosistema aberatsa" duela egoera horri aurre egiteko. Hala adierazi zuen txostenaren aurkezpenean *Zurrumbiloa* proiektuaren arduradunetako batek, Aitziber Agirre Ruiz de Arkauten Elhuyarreko kideak. Elgoibarko udaletxeko udalbatza aretoan aurkeztu zizkioten prentsari azterketaren ondorio nagusiak, aurrez proiektuan parte



Elhuyar, Danobatgroup eta Udaleko ordezkariak: Pilar Iranzo, Aitziber Agirre Ruiz de Arkauten, Julian Aizpurua, Maialen Gurrutxaga, Maialen Aranguren eta Erika Lehr. JABI LEON

hartu duten eragile guztiekin partekatuta osten. Prentsaurrekoan, Julian Aizpurua Danobatgroupeko lehendakariak eta Maialen Gurrutxaga alkateak parte hartu zuten, Aitziber Agirre Ruiz de Arkauterekin batera, eta hirurek esker on hitzak izan zituzten *Zurrumbiloa* proiektuan parte hartu duten guztientzat. Orain, diagnostikoa esku artean dutela, hausnarketa-prozesua hasiko dute nerabeekin lan egiten duten eragile publikoekin, herri-mailan dauden erronkak identifikatu eta etorkizunean zertan esku hartu behar den erabakitzeko.

Gazteen euren ahotsa oinarri

Hiru informazio-iturri nagusik emandakotik edan dute ikertzaileek diagnostikoa osatzeko. Lehenengo eta behin, Elgoibarko ikastetxeetan matrikulatutako 12 eta 16 urte bitarteko 536 neraberaren ahotsa jaso dute. *Zurrumbiloa* proiektuaren lehenengo fasean, osasun mentaleko arazoak dituzten lau gaztek ere parte hartu zuten, eta, ikastetxeetan egindako lanketan, nerabeek haiei kontatutakoa bildu dute, batetik, bai eta lanketa horren ondoren gazteei bete-arazi zieten inkestako emaitzak ere. Bestetik, Osakidetza eman-

dako Elgoibarko datuak ere aztertu dituzte; eta, azkenik, herrian nerabeekin lan egiten duten eragileek egindako ekarpenak jaso eta aztertu dituzte. Datu horiek guztiekin osatu dute erretratua, eta nerabeen presio-iturri eta kezka nagusiak izan daitezkeenetan jarri dute arreta. Ondorioa garbia da: nerabeek presio handia bizi dute, eta presio hori hiru sektore nagusiren bidez jasotzen dute: familiarik, hezkuntzatik eta lagunartetik. Horrek, jakina, ondoez handia eragiten die gazteei, eta horren ondorio dira osasun mentaleko arazoak leuntzeko

gazteen %9,5ek psikofarmakoak hartzen dituztela.

Askotarikoak dira presioak, baina lau nabarmendu dituzte aztertzaileek. Presio akademikoa da bat, nagusia. Izan ere, nerabeen %49k aitortu dute kezka handia eragiten diela nota onak lortzeak. Presio estetikoak ere sentitzen dute gazteek, eta, bereziki, neskek, baina, gero eta gehiago, mutilek ere bai. Genero osagaiak pisu handia du oraindik gai horretan, datuek erakusten dutenez. Nesken %41ek aitortu dute beren gorputza ez gustatzeak eragiten diela min handiena, baina okerrera da

%20,3

Elgoibarko 0 eta 20 urte arteko haurren eta nerabeen %20,3k osasun mentaleko diagnostiko kliniko bat dute edo izan dute.

X6

Antiololitikoen preskripzioa sei aldiz hazi da azken hamar urteetan.

%9,5

Nerabeen %9,5k psikofarmakoak hartzen dituzte edo hartu izan dituzte.

%11,2

Nerabeen %11,2k aitortu dute inor ez dela konturatzen gaizki daudenik.

%36,7

Nerabeen %36,7k ez dute laguntzarik eskatzen behar dutenean.

gorputz-irudiari lotutako ondoeza normalizatzan ari dela. Kirolean errendimendu ona izatearen presioa ere sentitzen dute gazteek, mutilek gehiago neskek baino: mutilen %23,4ri eragiten die kezka kirolean nahikoa ona ez izateak, eta nesken %15,3ri. Eta bada laugarren presio-iturri kezagarri bat ere: lagunek eragindako presioa. Inkestatutako gazteen %36,8k aitortu dute min ematen diela lagunaren bazterketak, eskola jazarpenak eta lagunak ez topatzeak.

Gehiegikeria-zantzuak ohituretan

Beren ohiturez ere galdetu die gazteei, bai eta gehiegikeriaz jokatzan duten haietan ere, adikzioraino iritsi ezta ere, eta sakelako telefonoa gehiegi erabiltzen duen ustea agertu du kopuru handi batek. Esate baterako: 16 urteko hamar neskatik zazpi dira ihesbidea telefonoan topatzen dutenak (%69), eta hamar mutilek lau (%44). Gazteek egiten duten gehiegikerietan garrantzia du generoaren osagaiak. Esaterako: nesken %51k aitortu dute antsietatez jaten dutela –mutilen %26–, eta %20k onartu dute gehiegi gastatzen dutela arropatan eta makillaje kontuetan. Mutilen kasuan, aldiz, substantziak kontsumitzeko joera handiagoa dago. 16 urteko gazteen %26k alkoholarekiko gehiegikeria aitortu dute, %24k pornoarekikoa eta %13k droga gogorrekikoa.

Laguntza premia, eta eskatzeko ezina

Gazteen osasun mentalak okerrera egin badu ere, laguntza

premian direnek zailtasunak dituzte laguntza eskatzeko. Eta badira bi datu azpimarratzekoak: batetik, nerabeek sentitzen dutela beren ondoeza oharkabeaz pasatzen dela; eta, bestetik, ondoez horri bakarrik egiten diotela aurre askok. Datutan, hemen: gazteen %11,2k diote inor ez dela jabetzen gaizki daudenik, eta, aldi berean, laguntza beharrean dauden %36,7k zailtasunak dituzte laguntasuna eskatzeko, ez dutelako izan behar besteko ezagutzarik dauden baliabideez edo izan zailtasunak dituztelako gurasoei edo gertukoari eskatzeko.

Genero aldagaiak, edo zehazki maskulinitatea ulertzeko mutil askok duten moduak, eragin handia du hemen ere. Izan ere, mutil askok aitortu dute ez direla lagunartean laguntza eskatzera ausartzen, barre egingo dieten beldur. Eta horrek, jakina, zaurgarriago egiten ditu mutilak osasun mentalaren gaian. Nesken lagun-sarea mutilena baino osasuntsuagoa da, alde horretatik, ez baitute mutilek besteko arazorik izaten lagunei beren ondoeza agertzeko. Hala ere, laguntza eskatzen ote duten galderari erantzunez, askok esan dute sarritan ez dutela laguntzarik eskatzen, ez dute-

lako nahi gurasoak kezkatzerik eta haserretzerik.

Laguntza eskatzeko ezina dute gazteek, beraz, eta bada kolektibo bat bereziki zaurgarria egiten duena horrek: migrazio esperientziak bizi izan dituzten nerabeena. Izan ere, nerabe migranteen %71k ez dute laguntzarik eskatzen, eta ezin hori sentitzen dutenen artean neskak gehiago dira mutilak baino. Arrazoi asko egon daitezke horren atzean, kulturalak batzuk, baina *Zurrunbiloa* proiektuan parte hartu dutenek beste faktore bat ere azpimarratu dute, arreta kirolean jarrita egin duten beste azterketa batean. Neska migranteen %31,6k ez dute parte hartzen aisialdi egituratuan, eta horrek berak haien laguntza-sarea txikiagoa izatea egiten du.

Aurrera begira, zer?

Nerabeen ongizate emozionalaren erretratua osatu dute *Zurrunbiloa* proiektuan, eta diagnostiko hori Elgoibarren nerabeen osasun mentala babesteko ekosistema komunitario sendoa eraikitzeke abiapuntua izatea nahi lukete proiektuaren sustatzaileek. Horretarako, orain arte bezala, elkarlanean aritzea ezinbestekoa izango dela nabarmendu zuen Maialen Gurrutxaga alkateak aurkezpenean. Nerabeen ongizate emozionalaren gaineko ardura denona dela esan zuen, eta, aldi berean, orain arteko norabidean lan egiten jarraitzeke konpromisoa agertu zuen. Azaldu zuenez, hiru lan-ildo nagusitan oinarrituko dute hemendik aurrerako lana: prebentzioan, formazioan eta esku-hartzean, hain zuzen.

Aisialdi egituratuan ez dabilzan nerabeak, babesgabeago

Aisian eta kirolean ere jarri dute arreta *Zurrunbiloa* proiektuan, eta badira hor ere ondorio batzuk arretaz erreparatzea eskatzen dutenak. Batetik, nerabeekin egindako lanketatik ondorioztatu dute kirolak prestigio handia duela Elgoibarren, nerabeen %75,6k egiten baitute kirolen bat. Bestetik, argi ikusi dute nerabeen osasun fisikoa, mentala eta soziala hobetzeko potentzial handia daukala kirolak, nahiz eta identifikatu dituzten kirol esparruan dinamika kezagarri batzuk ere, aurrerago aletzeko laga dituztenak. Aztertzaileek aurreratu dute, hori bai, nerabeen aurkako indarkeriaren sintoma izan daitezkeela dinamika horiek.

Esan gabe doa kirola egiteak osasun ona sustatzen duela, izan fisikoa nahiz mentala, baina onura gehiago ere ikusten dizkiote kirolari adituek. Esaterako: nerabeen talde-pertenentziaren sentipena indartzeko gaitasuna aitortzen diote, emaitzek erakutsi dutelako kirolek kanpo gelditzen diren nerabeak zaurgarriagoak direla, kirolaren inguruan sortzen den lagunsaretik kanpo gelditzeak laguntza eskatzeko aukerak murrizten dizkielako.

Kulturak ez du kirolak adinako prestigiorik

Kulturak, arteak eta zientziak ez dute kirolak besteko prestigiorik gizartean, oro har, eta Elgoibar ez da salbuespena, jakina. Nerabeen %57,5 dira kultura, arte edo zientziaren aisialdi-jarduerak egiten dituztenak, baina jarduera horietan ez da lortzen kohesio-funtzioa berdin betetzea. Alegia, nerabeek ez dute kirolean adinako talde-pertenentzia sentitzen. Nolanahi ere, garrantzitsua irizten diote adituek aisialdi egituratuan parte hartzeari, hortik kanpo daudenek laguntza eskatzeko zailtasun handiagoa dutelako. Eta hor ere, egoera zaurgarrienean daudenak migranteak dira, neskak. Neska migranteen %31,6 sare horretatik kanpo gelditzen dira.

Nerabeen ongizate emozionalaren gaineko ardura kolektiboa dela nabarmendu du alkateak

Nerabeen barne-ondoez batzuk, puntuz puntu

- Helduen exigentzia. Autoestimua kaltetzeraino eragiten die gazteei helduek ezarritako exigentzia-maila handiak. "Gurasook gure erakusleho soziala balira bezala bizi ditugu seme-alabak, eta ez gara ohartzen horrek haiengan eragiten duen kalteaz", azpimarratu du Aitziber Agirre Ruiz de Arkatek.
- Erreferenteak. Erreferente osasuntsuak falta dituzte.

- Sare sozialetan bilatzen dituzte erreferenteak, eta, askotan, ez dira egokienak.
- Gurasoak eta mugak. Gurasoen denbora eta muga-falta. Eguneroko erritmoak itota dauzka gurasoak. Mugak beharrezko dira haurrak eta gazteak seguru hazteko, baina, askotan, mugak falta dituzte, eta arazoetako bat bada gurasoek denborarik ez izatea ezertarako.

- Emozioak. Emozioen kudeaketari lotutako gabeziak eta ezintasunak dituzte.
 - Homogeneotasun inposatua: elgoibartar izateko modu bat dira kuadrillak, eta elgoibartar izateko moduan sartzen dituzte ikasketa-mota bat izatea, enpresa jakin batean lan egitea, aisialdia ulertzeko modu bat izatea...
- Horrek guztiak asko estutzen ditu nerabeak.



INGURUMENA

2020an hasitako auzia bukatzeko eskatu du Zaldibar Argitu plataformak

Otsailaren 8an, igandea, elkarretaratzea egingo dute Eitzagan, hondamendiaren seigarren urteurrenean

Dorleta Vidal ERMUA

2020ko otsailaren 6an gertatu zen Zaldibarko zaborteziaren hondamendia, eta oraindik ere horren arrazoiak eta erantzuleak ez direla argitu salatu du Zaldibar Argitu plataformak. Horrekin batera, beste bost puntu jasotzen dituen oharra zabaldu zuen herri ekimen horrek komunikabideetan urtarrilaren 31n, *elDiario.es* hedabideak argitaratutako filtrazioen aurrean haien jarrera adierazteko asmoz. Idatzi horretan jasotzen denaren arabera, plataformako kideek ez dituzte onartuko haien arre-ta "benetako mamitik desbideratzeko ahaleginak".

Azken urteetan, Ermuko, Eibarko, Elgetako eta Zaldibarko herritarrek osatzen duten Zaldibar Argitu plataformaren jardura moteldu egin da, eta Zaldibarko herritarrek dira aktiboen jarraitzen dutenak, "batez ere urteurrena gerturatzen denean", azaldu du taldeko kide Idoia Marinek. Aldi berean, martxan dagoen instrukzioan aurrerapausoak ematen badira, taldekideak aktibatu egiten dira, aldaketen jarraipena egiteko eta guztien arreta erabakiak hartzeko, plataforma bera pertsonatuta baitago prozedura judizial horretan.

Auzi horrek ingurumenaren kontrako delituak aztertzen dihardu, eta 2020a ezkerro darma instrukzio fasean, "etengabeko luzapenekin". Hala, 2025eko azaroan jakinarazi zen instrukzioa beste sei hilabete luzatuko zela, Bizkaiko Probintzia-Auzitegiaren aginduz, "gehiago iker-tzeko aitzakiarekin", azaldu du Marinek: "76 hilabete beteko dira instrukzioa hasi zenetik, eta iruditzen zaigu gehiegizkoa dela. Eskatzen dugu prozesua behingoz amaitu dadila, eta



2025eko elkarretaratzean ere, erantzukizunak argitzeko eskaera egin zuen Zaldibar Argitu plataformak. RAFA IRAETA

zehaztu dezatela zeintzuk izan diren hondamendiaren arrazoiak eta nortzuk diren erantzuleak. Ikerketa horien emaitzak ikusi nahi ditugu, eta jakin nahi dugu zeintzuk izango diren ondorioak".

Plataformako kideek antzematen dute atzerapen horien atzean badagoela gaiak indarra galtzeko nahia. "Kontua baretzen joatea nahi dute, diluitzen, benetako arduradunak ahalik eta egoerarik onenean irten daitezten. Erantzule pribatuak berehala auzipetu zituzten, baina hemen ardura asko daude", zehaztu du Idoia Marinek. Haren arabera, auzi horretan hamahiru pertsona agertzen dira ikertu bezala, tartean Ingurumen Saileko teknikariak, "eta erantzukizun politikoak ere egon beharko lirake".

Erantzule pribatuei dagokienez, Marinek gogoratu du zuhurtziagabekeriak bi homizidio delituengatik egin zen epaiketak 21 hilabete iraun zuela, eta hura itxi egin zen Verter Recycling enpresako hiru pertsonari kartzela-zigorra jarri eta gero. Akusatuek ez ziren espetxera joan, Fiskaltzarekin eta familiarekin akordioa egin baitzuten.

Lurralde antolamendua

Ingurumen delituak aztertzen diharduen prozesu horretatik beste auzi bat sortu zen 2024an, hirugarrena, lurralde antolamenduaren kontrako ustezko delituak aztertzen ari dena, hain zuzen ere. Plataforma ez dago pertsonatuta auzi horretan, baina azken egunotako gertaerek kideen aktibazioa bultzatu dute. Izan ere, aurretik aipatu bezala, *elDiario.es*-ek epaitegiko txostenaren zati batzuk filtratu zituen urtarrilaren 27an; zehazki, Ertzaintzak egindako ikerketen autoa.

"Auto hori 2019 eta 2023. urteen artean alkateorde izandako Juan Mari Uriarteren adierazpenetan oinarritzen da. Horren arabera, Arantza Baigorri alkate ohiari eta beste hiru langileri egozten diete Verter Recycling enpresaren mesedetan jokatu izana, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra jaso zutelako, baimenik gabe erabiltzen ari zen lur eremua erregularizatuz", azaldu du Marinek. "Horiek horrela, argitu beharko da ere zer erantzukizun daukaten Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, haiek direlako plan horri oni-

ritzia eman ziotenak 2020ko apirilean, Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Imanol Pradalesen birtartez".

Gainera, taldeak zabalduetako oharrean jasotzen denez, "harrigarria" iruditzen zaie Uriarte bera eta Jose Luis Maiztegi alkate ohia ikertu moduan ez agertzea, Uriartek berak zuzendu zuelako Udala eta, bereziki, Verter Recyclingekin harremanak izan zituelako zaborteziaren amildu aurretik eta ostean, taldekideen arabera.

Horrez gain, filtrazioak agerian jarri du ezbehar hari lotuta hoge delitu egon zirela, baina horietatik hamabost, 2015ekoak baino lehenagokoak direnez, preskribatuta daude, eta epaileak uko egin dio horiek ikertzeari. "Horrek erabat desitxuratzen du ikertzaileen

Ingurumenaren kontrako delituak aztertzen diharduen auzia instrukzio fasean dago

testuingurua, lizentziak eta baimen guztiak 2015a baino lehen eman zirelako, eta iruditzen zaigu badagoela udal agintari batzuen ardurak ez ikertzeko asmoa. Izan ere, epaileak jarri dezake langa 2020an –hondamendia gertatu zenean–edo 2026an, eta, horren arabera, delitu batzuk preskribatuta egon daitezke eta beste batzuk ez".

Bestalde, filtrazioari berari dagokionez, plataformako kideek susmo txarrak dituzte: "Urteurrena hain gertu egonda, eta aste hauetan hainbat udaletan gertatzen ari dena ikusita, pentsatzen dugu filtrazio horrek arre-ta desbideratzeko asmo argia duela". Arre-ta desbideratzeaz gain, ikerketek beste norabide bat hartu dutela erakusten dute zabalduetako datu horiek, eta plataformako kideek berriro ere diote arre-ta jarri behar dela zaborteziaren tramitazioan izandako irregular-tasunetan, Eusko Jaurlaritzaren arduragabekeria ikuskaritzan, ustiaketan egindako irregular-tasunetan eta amildu osteko kudeaketa ilunean.

Langileak gogoan

Otsailaren 8an, igandea, elkarretaratzea egingo dute Eitzagan, 12:30ean, Zaldibar Argitu plataformak deituta. Urtero bezala, ekitaldi "xumea" egingo dute, hondamendiaren ondorioz hildako bi langileak gogora ekartzeko – Joaquín Beltran eta Alberto Sololuze— eta erantzukizunak exijitzeko. Antolatzaileek adierazpen bat irakurriko dute, bertsolariz eta txalaparta-jotzailez lagunduta, eta lore-eskaintza izango da gero.

Iazko ekitaldian ehunka pertsona joan ziren bertara; tartean, hildako bi langileen senideak eta Zaldibarko alkate Eneritz Azpitarte. Gainera, Idoia Marinek berak testu bat irakurri zuen plataformaren izenean, ingurumenaren kontrako ustezko delitua aztertzen duen auzi hura bukatzeko eskaera jasotzen zuena.

Filtrazioaren arabera, hoge delituetatik hamabost preskribatuta daude

ELGOIBAR

Otsailaren 14an



ATXUTXI KARAOKEA



MAALAKO PARKEAN
17:30-19:00



BERTSIO GAUA

SARIAK

Taldeko 1.saria: 250 €

Taldeko 2.saria: 170 €

Bakarkako saria: 170 €

Sari berezia: 150 €

00:00 - 02:00

MAALAKO PARKEAN

Izen ematea aurretik edota egunean bertan

Informazioa: www.elgoibarkolzarra.eus

📞 747 489 048



NIRE USTEZ

Nor zara?



ANGEL UGARTEBURU
IRAKASLE OHIA

Galdera arrunta. Izenak identifikatzen gaitu eta, hala behar balitz, deiturak. Izen eta deitura berdinak izanda ere, ez dira beti gauza bera izena eta izana. Dudak uxatzeko hor dugu beste galdera bat: zein zara? Herriak, familiak, hizkuntzak eraiki du bakoitzak geurea dugun *Nor* hori. Bestela, ez gara inor. Pertsonak *Nor* gara eta gauzak *Zer*. Nortasuna eraikitzeo beharrezkoak dira zer horiek. Ezin dugu zerik gabe ezer proiektatu, egin, eraiki. Ezin dugu bizi.

Ariketa filosofikoa edo hitz joko hutsa ematen badu ere, adierazi nahi dudana ulertzeko abiapuntu ona da egindako sarreratxoa. Guztiok dugu NAN edo Nortasun Agiriaren Numeroa. Nor izateak, ordea, izen eta deitura soilak baino gehiago eskatzen du: pertsona moduan dituzun premiak asetzeko, etorkizuna proiektatzeko, herri bizitzan partaide izateko bitartekoak behar dituzu. Izan ere, botere handiagoa dutenen menpeko zer bihurtzen bazara, ez zara inoiz inor izango. Asko dira mundu zabalean, herri nahiz gizaki, haundi-maundi ase-ezinen gehiegizko norkeriak ezerezeroa kondenatu dituenak.

Nor gara? Badugu, zorionez, gure nortasuna babesten lagunduko digun funtsezko erreminta: elkartasuna. Gure ohitura, jolas, kantu, dantza, jai eta, guztien gainetik, hizkuntza da nortasunaren gordailu. 100 urte ez dira asko. Are gutxiago iragana direnean. Elgoibarren, Euskal Herriko beste leku gehienetan bezala, %90k jakin eta erabiltzen zuen euskara eguneroko jardunean. Badakigu zer ekarri zigun gure nortasuna suntsitu nahi izan zuen diktadurak. Ez zuela lortu esaten dugu, baina kalte handia egin zigun. Euskaldun asko daude euskara jakinda ere erderara jotzen dutenak. Agur, gero arte, *hasta gero*, ondo ibili, zorionak... eta beste banaka batzuk erabilita, euskaraz ari direla uste izateraino.

Gaur egun Elgoibarren hizkuntza mota ezberdin asko entzuten dugu. Kanpotik etorri diren horiek, eurena gordez, argi ikusten dute gure hizkuntza bigarren mailakoa dela, ez dutela zertan ikasi. Orain ez digu balio diktaduraren aitzakiak. Guk geure burua aintzat hartzen ez badugu... zer eskatu inori?

Lazkao txiki bertsolariak aspaldi egindako iragarpena datorkit gogora: “Egunen batean gure arteko solasean lasai asko komunikatuko gara erderaz, euskaraz ari garelakoan”. Aurreikuspen hori betetzen ari dela esango nuke.

Badakigu 100 urte barru egingo duten hizkerak ez duela gaurkoaren itxura berdina izango, baina euskara izaten jarrai dezan eman diezaigun gure nortasunaren bultzada. Gizarteko harremanek kontzertu harmoniatsu baten modukoak izan behar lukete. Geure musika jotzen ez badugu, tresna uhartu egingo da eta harmonia polifonikoa galtzaile izango da. Nor zara? Nor gara?

GUTUNAK

Eibar, hormigoizko hiria

INA OIARTZABAL ERRASTI
EIBAR

Azkenean, bukatzen ari dira Eibarko pasealeku berria; kilometro bateko aireko pasealekua. Bitxia izango da, bertara joateko eskailera edo igogailua erabili beharko den pasealeku bat izango delako.

Inguru horretako ehunka pertsonari eragingo dien kalte ikaragarriaz eta izaten ari den koste beldurgarriaz gain – oraingoz, kilometro bateko paseoaren eraikuntzak 24.500.000 euroko kostua du–, une honetan, Barrenatik Electrociclorantz begiratzean, eraiki den hormigoizko pareta, igogailu eta pasealekua ikustekak izugarritzako pena eta egonezina eragiten du; hormigoizko munstro berri bat eraiki duten irudikapena dut.

Gai honen harira, orain dela hilabete batzuk *Berria* egunkarian argitaratutako artikulu zabal bateko hainbat gogoeta gogoratzea egokia dela uste dut.

Asfaltoaren eta zarataren erdian, berdeguneak hiriko bizitza arintzen duten arnasmune txikiak dira. Itzala eta paseatzeko guneak eskaintzeaz gain, airea garbitu, beroa eta estresa apaldu eta herritarrak naturarekin lotzen dituzte. Hiriak gero eta gehiago berotzen diren honetan, zuhaitzak eta berdeguneak ez dira apaingarri hutsak –ez dira itxurakeriazko lorategi-eremu edo loreontziak–, klima larrialdiaren aurkako babesak ere ematen duten espazioak

dira. Europako Batasunak eta nazioarteko erakundeek hirietan eremu natural hauek handitzea aholkatzen duten bitartean, ikusten ari garen bezala, udal batzuek ez dute horren aldeko inongo apusturik egiten.

Herritarron bizi-kalitatearen ardura duen agintari batek uste dut ezin duela espazio naturalik gabeko hiri batekin amestu; arnasmunerik gabeko hiri batekin amestu. Badirudi politikari batzuei ahaztu egiten zaiela klima aldaketaren borrokan zuhaitzek eta berdeguneek funtsezko rola betetzen dutela. Eibar bezalako udalerrri handi batean ikaragarritzako onurak izango lituzkeela ahazten zaie, besteak beste, lagunduko lukeela bero boladen eragina arintzen, airearen kalitatea hobetzen edota bizilagunen ongizatea bermatzen.

Eibarren ingurumenaren aldeko borroka potoloak ditugu gure artean, bereziki, azken garaian, energia berriztagarrien izenean – makroparke eolikoak edonon eta edonola eraikiz– naturaren suntsiketa egiteko prest daudenen kontrako borroka. Baina ardura handi horretaz gain, pentsatzen dut Eibarko hiri eremuan ere hormigoi eta zementua murriztu eta etorkizuneko hiri berde posible batekin amesteari ekin beharko lioketela agintariak, eibartarren bizi-kalitatean eta ongizatean pentsatuz, aditu gehienek dioten bezala, etorkizunera begira, inguru berde eta zuhaitzi ederrak ezinbesteko elementuak direlako.

Buruko gaixotasunak serio hartzeko kontuak

M.I.
ELGOIBAR

Osakidetzak alor guztietan egin ditu murrizketak, eta alor guztiak dira garrantzitsuak, baina iruditzen zait sail batzuetan ezin dela murrizketarik egin; are gehiago, sail batzuk indartu egin behar dira. Buruko gaixotasunaz ari naiz. Nire kasu propioa azalduko dut, nire azalean jasaten ari naizelako Osakidetzaren murrizketa hau, baina argi laga nahi dut asko garelako nire egoera berean gaudenak.

Eibarko Buruko Osasun Saileko gaixoa naiz. Psikologo eta psikiatra zerbitzuak jaso izan ditut urteetan, eta haiei esker nago bizirik. Iazko urrian Ana Monedero nire psikiatrak erretiroa hartu zuen, eta ekarri zuten haren ordezkoko bat. Tamalez, ordezkoko dagoeneko ez dago. 500 paziente zituen Monedero doktoreak, eta, azaldu digutenez, botikak egunero hartzen dituzten pazienteei jarri diete orain beste psikiatra bat, baina gainontzekoei psikologo zerbitzua soilik mantendu digute. Horrek esan nahi du inork ez digula medikazioa zaintzen, baina jakina da ezinbestekoa dela guri ere medikazioaren jarraipena egitea.

Debabarren osoari ematen dio zerbitzua Eibarko Buru Osasunaren Sailak, eta denetarikoa pazienteak gaude: eskizofrenikoak,

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.
Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,
Izaro Aulestiarte.

Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetzak eta banaketa arduraduna
Alex Turillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
Tel.: 943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
Tel.: 943 74 41 12

ERMUAKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
Tel.: 943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
Tel.: 943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.000 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

BARRENEN ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



depresiboak... Gure burua oso ahula da, eta sarri hondoratzen gara zulo beltzean. Edozer egiteko gai gara, eta orduan beranduegi izango da. Norbaitek zer bait potoloa egin arte ez al dute neurrik hartuko?

Osasungintza pribatuaren aukera ere aztertu dut: psikiatra pribatu batek 150 euro kobratzen du lehenengo kontsulta, eta bigarrena, 120 euro. Hortik aurrerakoak 90 euro inguruan daude. 1.080 euroko pentsioa daukat, eta diru horrekin nahikoa lan izaten dut oinarritzko beharrak asetzeko, inolako kapritxorik gabe. Familiakoek eta lagunek laguntzen digute askotan, eta haiei esker jarraitzen dugu aurrera.

Osasungintza publiko kalitatezkoa behar dugu, eta agintarien esku dago hori lortzea. Medikuntza ikasteko erraztasunak eman beharko lituzkete, ezin delako aitzakia izan medikuak falta direla. Hemen lan egin ahal izateko euskara derrigorrezkoa izatea ere traba bilakatu da, horrek ate asko ixten dituelako. Osakidetzak gure garrasia entzun behar du, berandu baino lehen.


Elkartasun kanpaina

A.I.Z. ELGOIBAR Aroztegiko Elkartasun Komiteak elkartasun kanpaina bat abiatu du isunei aurre egiteko. 70.000 euro biltzea da asmoa, eta kontu korronte bat zabaldu dute, ekarpenak egiteko. Kartzela

zigorrik ez, baina 62.000 euroko isuna ordaintzeko zigorra ezarri diete Aroztegia auziko zazpi auzipetuei. Duela lau hilabete iritsi zen lehendabiziko epaia, Iruñeko Zigor arloko 3. epaitegiarena. Ebazpen horrek talde kriminalaren akusazioa alde batera utzi zuen, eta, horrela, zazpi auzipetuek kartzela zigorra saihestu zuten. Horrez gain, antolakuntza demokratikoaren eta desobedientzia zibilaren kriminalizazioa ere saihestu zuten.

Lehenbiziko sententzia horren kontra akusazioak helegitea jarri zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian –epaileak ez zuen aintzat hartu–. Hala ere, enpresak bide judiziala luzatu nahian jarraitzen du, helegite gehiago aurkezten. Epaia hau behin betikoa ez bada ere, Aroztegiko Elkartasun Komiteak ez du arrazoirik pentsatzeko etorkizunean etorriko diren helegiteek euren kontrako zigor ekonomikoa arinduko dutenik. Eta horregatik abiatu dute dirua biltzeko kanpaina. Herriz herri auzolanean bidelagun izan dituzten guztiak kanpainarekin bat egitera deitu dituzte, eta ekintzak antolatzen, diru bilketarekin laguntzeko. Denon artean aletxo bat jartzen badugu, zer diozue? Aroztegia geldituko dugu!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus



"Beti izan naiz autodidakta samarra, eta nire kabuz ikasi dut guztia"

XABIER ISASTI ARTISAUA

Ainhoa Andonegi

Xabier Isasti (Elgoibar, 1959) artisau elgoibartarrak pirograbatuaren erakusketa inauguratu zuen atzo, eta otsailaren 15era arte egongo da ikusgai, Aita Agirreko erabilera askotariko lokalean. Astegunetan 18:30etik 20:30era egongo da zabalik; zapatuetan, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeaz 18:30etik 20:30era; eta domeketan, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

Zertan datza pirograbatuaren teknika?

Egurra erretzean oinarritzen da teknika hori. Lehenik eta behin, egurrean marraztu egin behar da, eta horretarako, jakina, marrazketaren teknika ere landu behar da. Behin marrazkia egin da, pirograbagailu baten bidez erre egiten da.

Noiz eta nola hasi zinen pirograbatua lantzen?

Betidanik gustatu izan zait artisautza, eta aspaldi hasi nintzen eskulanak egiten. Iturgina nintzen ofizioz, eta lanak ez zidan denbora askorik lagatzen nire zaletasunerako, baina 2010ean langabezian geratu nintzen eta nire denbora artisautzari eskaintzea erabaki nuen, horrek laguntzen didalako burua aske mantentzen. Donostiara asko joaten naiz; hura beste mundu bat da artisautzat, eta hango liburu-denda batean aurkitu nuen pirograbatuaren arteari buruzko liburu bat. Interesgarria iruditu zitzaidan eta erosi egin nuen.

Liburu batetik ikasi duzu teknika?

Beti izan naiz autodidakta samarra, eta nire kabuz ikasi dut guztia. Liburuan zehazten zuen ezinbesteko baldintza zela marrazten jakitea, eta nik eginda ditut marrazketako oinarritzko ikasketak. Beraz, pirograbagailua erosi eta probatzen hasi nintzen. Pirograbagailuak tamaina askotariko puntak dauka, eta ematen diozun indarraren arabera lortzen da irudiari bolumena ematea. Marrazkia erre ahala, egurraren barruko kolorea kanpora irteten da, eta hori da, azken batean, pirogra-



Picassoren 'Gernika' koadroa, pirograbatuaren teknikarekin. A.A.

batua. Normalean, beltzez marrazten dut, baina koloretako irudia lortzea ere erraza da; koloretako arkatzak erabili eta kito. Donostiako denda batean saltzen ditut lanak, eta Iparraldeko jendeak erosten ditu lan gehienak. Eguzki-loreak izugarri gustatzen zaizkie. Eguzki-lore pila bat egin ditut eta dagoneko buruz irteten zaizkit.

Gaztetatik diharduzu artisautzan. Egurra zizelkatzen ezagutu zintugun. Zergatik utzi zenuen hura?

Konturatu nintzen egurra zizelkatzeak ez zeukala interes handirik. Jendeak ez dio baliorik ematen gure lanari, eta, askotan, iruditzen zitzaidan ganbaran gordetzeko lanak egiten nituela. Egurra zizelkatzeko lanak enkarguz bakarrik egiten ditut gaur egun; bestela, ez dira saltzen. **Zein egoera bizi du artisautzak gaur egun?**

"2010ean langabezian geratu, eta artisautzari denbora eskaintzea erabaki nuen"

Artisautza galtzen ari da. Lehen, azoketara joaten ginean ere eskatzen ziguten zuzeneko erakustaldia bertan egiteko, baina gaur egun ez dute horrelakorik eskatzen. Izan ere, azoketan ez da lehen-go artisaurik ikusten eta postu gehienak pitxienak izaten dira. Artisau betetanorik ez da ikusten. Niri dagokidanez, gainera, jubilatuta nagoenez, ezin dut azoketan parte hartu. **Zer ikusiko du erakusketara joaten denak?**

50 bat lan daude ikusgai; denak pirograbatuak. Paisaiak, erretratuak, eraikinak... denetarik egiten dut. Batzuetan, neuk sortzen dut marrazkia; eta, beste batzuetan, argazki batetik kopiatzen dut. Aukera dago gero irudi nagusiari hondo bat gehitzeko edo nahieran moldatzeko. Koadro horiek erakustez gain, zuzenean arituko naiz lanean, herritarrek pirograbatuaren teknika ezagutu dezaten. Gustatuko litzaidake erakusketa hori beste herri batzuetara ere eramatea. Eibarren egin nuen, eta Sorluzeko Oreka Art aretoa ere toki aproposa iruditzen zait.



Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira protagonistak. TXALO PRODUKZIOAK

'Trajea' antzezlanaren taularatuko dute gaur Herriko Antzokian, 19:00etan

A.A.

Txalo Produksioak taldearen eskutik *Trajea* antzezlanaren ikus-tereko aukera izango da gaur Elgoibarko Herriko Antzokian, arratsaldeko zazpietan hasita. Sarrerak online eskuratzeko aukera dago, *herrikoantzokia.eus* webgunean, baina leihatilan bertan ere egongo da aukera erosteko.

'Trajekomedia'

Fikziozko antzezlanaren *Trajea*, baina errealitatearen ere badauka. Hiriburuko saltoki handietako merkealdia lehen egunean giroa dago istorioa, eta sarritan ikusten diren irudi horietako bat errepikatuko da:

jendea tropelean sartuko da eta istripu bat gertatuko da. Segurtasun-langile batek negozio-gizon bat galdekatu du, traje bat erostera etorri delako eta gertakariekin zerikusia izan duelako.

Asier Hormaza izango da eroslea eta Joseba Apaolaza, berriaz, segurtasun-langile, baina ez edonolako, xelebre samarra baizik. Joan den astean elkarriketa eman zion Apaolazak BARRENARI, eta, hitz-jokoa eginez, antzezlan hori *trajekomedia* moduan definitu zuen. Umorezko antzezlanaren dela aurreratu zuen, eta, horrez gain, istorioak badaukala amaierara arteko tentsio-puntu bat.

Txankakuaren zozketako saridun batzuk falta dira

Txankakua merkatarik elkartek 3.000 euro zozkatu zituen Egu-berrietako kanpainaren barruan, baina oraindik ez dira agertu txartel sarituen jabe guztiak. Bihar amaituko da saria erreklamatzeko epea.

- 59.569 (ordezkotza, 12.792)
- 95.455 (ordezkotza, 34.337)
- 96.452 (ordezkotza, 93.190)
- 43.180
- 41.378 (ordezkotza, 73.648)
- 80.705 (ordezkotza, 8.411)
- 112

Zaintzari buruzko hitzaldia antolatu du Nagusilane martitzenerako

Nagusilan elkartek 25 urte bete zituen iaz, eta ospakizun ekitaldien barruan zaintzari buruzko hitzaldi bat antolatu du martitzenerako, *El arte de ayudar y ayudarse a sí mismo* dauka ize-

na, eta Albertina Fernandez Franganillok emango du. Jubilatuen Biltokian izango da, 17:00etan. Era berean, egunean, Nagusilane boluntarioak omen-duko dituzte, 11:00etan, biltokian.

Giro onean ospatu dute Bosko Eguna irakaskuntza ertaineko ikastetxeetakoek

Institutukoek ikastetxean bertan ospatu zuten; eta IMHk eta Mekak, Maalan

Ainhoa Andonegi

Urtarrilaren 31 izaten da Bosko Eguna. Lanbide Heziketako eta irakaskuntza ertaineko ikasleen eta irakasleen patroizendatuta dago egutegian, eta Elgoibarko ikastetxeetan egun horretatik gertuen dagoen barikuan ospatzen dute haren omenezko jaia. Elgoibarren joan den barikuan ospatu zuten: Institutuko ikasleek ikastetxean bertan egin zituzten ekitaldi gehienak; Lanbide Heziketako IMH eta Meka zentroetako ikasleak, berriz, Maalako parkera irten ziren.



Institutuko mozerro desfilea. A.A.

Egun osoko egitaraua

Lehen, nork bere aldetik prestatzen zituen ekintzak, baina, iaz hasitako bidetik, IMHk eta Mekak elkarrekin ospatu zuten eguna. Goizean goiz hasi zituzten ekitaldiak. Maalako parkean egin zituzten gehienak; besteak beste, patata-tortilla txapelketa, herri kirolak –sokatira, lokotx-biltzea...– eta futbolin eta ping-pong txapelketak. Halere, ikastetxean eta IMH kiroldegian ere egin zituzten beste kirol txapelketa batzuk: zerra proba eta areto futbol txapelketa, esaterako. Sari banaketarekin amaitu zituzten ospakizunak.

IES Elgoibar BH institutu-koak, aldiz, ikastetxean aritu ziren, adinkideekin jolasean eta lehian, baina Mintxetara ere joan ziren, krosa egitera, eta Olaizaga kiroldegira ere bai, futboleko jokatzeraz eta



Sokatira txapelketa, Maalan. A.O.

sokatiran lehiatzera. Batxiler- goko ikasleek egin zuten hori guztia, eta antzerkia ere bai. DBHko ikasleek, berriz, patata-tortilla txapelketa eta mozerro desfilea egin zituzten Arreiturreko jolaslekuan. De-

netariko dantza eta esketak egin zituzten, gelaka, umore giroan. Eguerdian, txaranga- rekin joan ziren kalejiran ikasle guztiak elkarrekin Sigmako aparkalekuraino, eta hantxe bazkaldu zuten.

Kandelario eta San Blas egunak ospatu dituzte aste honetan

A.A.

Astelehenean, otsailaren 2an, izan zen Kandelario Eguna, eta, tradizioari jarraituz, kandelak bedeinkatu zituzten herriarrek San Bartolome parroki- an. Ez zen, baina, ohiko bedeinkazioa izan: Joseba Gonzalez parrokoak beste kon- promiso bat zeukan Iruñean, eta haren ordeztortzekoa zen

apaiza ere azken unean ez zen agertu. Beraz, parrokiako la- guntzaileek hartu zuten, azke- nean, bedeinkazioa egiteko ardura. Kandelario edo Garbi- kunde Eguna izenez ezagutzen da egun hori kristauen artean, eta Jesus haurtxoaren tenplu- ko aurkezpena irudikatzen du. Antzina, Inauteriei hasiera ematen zien eguna izaten zen.

Martitzenean, San Blas

Martitzenean, berriz, San Blas Eguna izan zen, eta meza egin zuten parroki- an, San Blas opila- k eta eztarrirako lokarriak bedeinkatzeko. San Blas III. mendeko martiri bat izan zen, gotzaina eta medikua. Hain zuzen ere, haur baten eztarri- ko gaitza mirariz sendatu zue- la dio tradizioak, eta eztarri- en zaindaritzat hartzen da kristau tradizioan. Lokarri bedeinka- tua bederatzi egunez jantzi behar da, eta azken egunean, berriz, erre.



Henko dendako erakusleioa. A.A.

Emakume zientzialariak erakusleioetara eramantuzte

21 saltokik egin dute bat egitasmoarekin

A.A.

Otsailaren 11 Emakumezko Zien- tzialarien Nazioarteko Eguna da, eta, horren harira, emaku- mezko zientzialariak herriko dendetako erakusleioetara eramantuzte Elgoibarko Uda- lak eta Elhuyarrek elkarlanean. Egitasmo horren barruan, otsai- laren 2tik 27ra herriko 21 den- datan jarriko dituzte emakume zientzialarien irudiak, haiek zientziaren eta teknologiaren arloan egiten duten lana ezagu- tarazteko.

Bizilaberren barruan

Establezimendu bakoitzak emaku- me zientzialari bati eskaini- ko dio erakusleioa. Zientzia- lariarekin lotutako ilustrazioak eta informazioa biltzen dituzten horma-irudiak jarriko dituzte dendan, eta haren ikerketan inspiratuta apainduko dute

erakusleioa. Aurreko urteetan bezala, Egur eta Ane Arte tai- lerretako hurrek lagundu diete dendariei erakusleioak apaintzen. Era berean, zien- tzialari haien gaineko ginkana ere prestatu dute: saltokiz sal- toki, emakume protagonisten inguruko galderei online eran- tzunez osa dezakete ginkana herriarrek.

Ekimen hori *Bizilabe* egitas- moaren barruan sortu zuen Elhuyarrek, duela sei urte. *Bi- zilabe* gazteentzako jardura zientifiko eta teknologikoak egiteko aisialdi-jardura da, eta helburua da gazteak zientziara gerturatzea. Elgoibarko Udalak bat egin zuen hasieratik Elhu- yarrekin, eta azken urteotan Steam ikasketei balioa ematen ari zaizkie, hainbat ekimenen bitartez; bereziki, emakumezko ikasleen artean.



San Blas opilak bedeinkatzen. A.A.

NIRE USTEZ

Desobedientziaz



IKER LAUZURIKA
ZUZENBIDEKO
DOKTOREGAIA

Denbora baterako agur esan diot Euskal Herriari, doktoretza egonaldi bat dela eta. Azken asteko agurraren korapiloaren erdian, alta, 75 minutuz beste toki batera eraman ninduen *Desobedienteak 18/98* antzezlanak. 18/98 makrokausaz gain, desobedientziaren kontzeptuaz eta historian inposatutako arauaren aurrean altxatutakoez mintzo da lana. Egun ere bere funtzioa ezinbestekoa dela

iradokitzen duela esan daiteke. Paradoxikoki, arauari hain lotuta nagoen arren, desobedientzia zibila demokraziaren muina dela sinisten dut. Zuzenbidearen funtzioa gizartea kontrolatu baino gehiago hura burujabetzea izango bada, arau bidegabeen aurrean erantzuten duen gizarte bat bermatu behar du. Hala ez

"Arauari lotuta egon arren, desobedientzia zibila demokraziaren muina dela sinisten dut"

bada, Milgramen esperimentuak erakutsi zigun ze puntura arte iristeko gai garen. Hala ere, desobedientzia sistematikoki zigortzen da, baita hemen ere. Esaterako, Ertzaintzak 2024an jarritako isunen %42 "autoritatea desobeditzeagatik" jarri ziren. Are, heziketa guztia obedientzian planteatzen zaigu, txintxo portatuta etorkizun oparoa izango dugun irudipenean. Horregatik, desobediente izateko zer gaitasun gelditzen zaigun galdetzen pasa nuen antzezlanak. Nik, zuk, salatuko genuke injustizia hura bermatzen duen sisteman?

KLIK

Elurrez estalita ikusteko itxaropena



JOSE RAMON CABRERA
ARGAZKILARIA



Garai honetakoa izan zitekeen, baina argazki hori zaharragoa da. Nolanahi ere, ez dugu galdu Idotorbe auzoa garai batean bezala elurrez estalita ikusteko itxaropena.



SEMAFOROA

Jarlekuak bai, baina estalpea falta



"Eskerrik asko autobus geltokian jarlekuak jartzeagatik, baina, hala ere, estalpea handitzea falta da. Jende askok erabiltzen du geltokia, eta, euria egiten duenean, denak ez dira estalpean kabitzen".

Trafiko handia kiroldegi aurrean



"Guraso asko autoz joaten dira umeen bila kiroldegira, eta edozein lekutan uzten dute autoa. Garajerako sarrera oztopatzen dute, eta arrisku egoerak sortzen dira. Bizilagunok eskertuko genuke udaltzainen presentzia handiagoa".

Kiroldegiko abonuaaren gorakada, gehiegizkoa



"Kiroldegiko kuoten igoera izugarria izan da. Azken bi urteotan sekulako garestitzea izan dugu kuotetan, baina zerbitzuetan ez dugu hobekuntzarik igarri. Abonatuok, gainera, ez dugu apenas deskonturik ikastaroetan. Iruditzen zaigu Kirol Patronatuak ez dituela abonatuak behar bezala zaintzen".

Eguen Zuri egunean hasi eta martitzenera arte iraungo du mozorroen festak

Ainhoa Andonegi

Inazio Bereziartua musika eskolak hasiko du mozorroen festa Eguen Zuri egunean: ikasleak eta irakasleak kalejiran irtengo dira, 18:00etan, eta Maalarainoko bidea egingo dute. Han, musika eta dantza emanaldia egingo dute.

Barikuan Elgoibar Ikastolaren txanda izango da. 15:00etan hasita, Euskal Inauteriak antzetzuko dituzte: adin tarte bakoitzak herriko gune batean egingo du dantza, eta amaieran Kalegoen plazan bilduko dira guztiak. Gauean, bestalde, kontzertu berezia emango du Sinuösek. Aurtengoan 30. ekitaldia dute eta zerbait berezia egingo dutela aurreratu dute. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Zapaturako ere prestatu dituzte hainbat ekitaldi: Atxutxiamaikaren eskutik karaokea izango da, 17:30ean, Maalan, eta segidan, Mauxitxa txarangaren kalejira. Gauerako, berriz,

bertsio gaua prestatu du Udalak.

Martitzenean, Biraka

Inauteri-martitzen egunarekin bukatuko da mozorro festa. Umeentzako *Txiki festa* musika ikuskizuna eramango du

Txulalari taldeak Maalara, eta adinekoentzat, berriz, mozorro desfilea antolatu du Jubilatuen Biltokiak. Biraka dantza taldeak dantza ikuskizun berezia prestatu du, eta Santa Ana kalean hasiko dute kalejira, 18:15ean.



lazko inauterietako irudia. AINHOA ANDONEGI.

Urazandiko pitzadurei buruzko informazioa eskatu du Bilduk

Sortu diren arazo guztien "azalpen objektibo eta kuantitatiboa" eskatu dio koalizioak Udal Gobernuari



Errepideko arrakalak. ASIER ORBEA.

A.A.

Errezabal egoitzaren obrak Urazandi auzoan sortu dituen pitzaduren berri emateko bilera egin zuen joan den astean Udal Gobernuak auzotarrekin. Bilera hartan agerian geratu zen auzotarren kezka; izan ere, errepidean sortu diren arrakalez gain, obratik gertuen dauden etxebizitza askotan ere agertu dira pitzadurak. EH Bilduren ustez, herritarren kezka horiek guztiak kontuan hartu eta erantzun egin behar dira, eta egoera horrek adi egotea eskatzen du.

Hiru eskaera

Elgoibarko EH Bilduk informazio-eskaera bat erregistratu du Udalean, eta hiru eskaera egin dizkio Udal Gobernuari: lehenik eta behin, Errezabal egoitza izango denaren obrarekin lotuta sortu diren arazo guztien azalpen objektibo eta kuantitatiboa eskatu dute; era berean, sortutako arazo horiei aurre egiteko hartuko diren neurrien deskribapena ere jaso nahi dute; eta, azkenik, arazo horien eta etorkizunean sortu daitezkeen arazoen konponbideak jasotzen dituen txostenaren kopia ere eskatu dute.

Iban Urizar musikari elgoibartarrak sortu du 'Test' soinu-fikziorako soinu-banda

Ainara Argoitia

Astelehenean aurkeztu zuten EITBko Guau plataformarako sortu duten *Test* soinu-fikzioa, Donostian, Euskal Herriko Informatika Fakultatean. Oier Aranzabalek zuzendu du proiektua, eta Iban Urizar *Amorante* musikari elgoibartarrak sortu du soinu-banda, soinu ez organikoak erabilita. Gidoia, berriz, Xabier Etxeberriak eta Martin Etxeberriak egin dute eta Anartz Zuazuak zuzendu du lantaldea. Hiru aktore ezagunek hartu dute parte: Lorea Intxaustik, Ramon Agirrek eta Joseba Apaolazak. Bikoiztaile Euskaldunen Elkartek (BIEUSE) ere parte hartu du interprete taldean.

Adimen artifiziala du gaitzat *Test* soinu-fikzioak. Istripu baten ondorioz, hamazazpi herritar hilko dira; haietako lau, adin txikikoak. Task multina-



Iban Urizar. ISAAC BUJ-ARA

zionalak garatutako adimen artifizial aurreratu bat egon daiteke gertatutakoaren atzean, eta, agian, ez da istripua izan. Adimen artifizialak bere burua-

ren kontzientzia hartu eta bere kasa jokatu duen jakiteko galdetako hasiko du aditu batek. Test gisa hasten dena manipulazio eta kontrol-joko konplexu bihurtzen da, eta, protagonistak bezalaxe, entzuleak ere zalantzan geratuko dira sarritan zer den erreala eta zer den adimen artifizialaren diseinuaren parte. Hori da istorioaren abiapuntua, eta hortik aurrerakoak entzun egin beharko dira Guau plataforman.

Sei atal

Grabaketak eta nahasketak Ulu Media ekoiztetxearen estudioetan egin dituzte, Lasarte-Orian (Gipuzkoa), eta arte-zuzendaritza lana Alain Urrutiak egin du. Sei atal grabatu dituzte, eta dagoeneko entzungai daude guztiak Guau plataforman: *guau.eus/s/test*. 15 eta 25 minutu artean irauten dute.

Mila Oiartzabal hil da, Elgoibarko Izarrako presidente izandakoa

A.A.

Mila Oiartzabal Osoro hil zen zapatuan, 93 urte zituela. Euskal kulturaren defendatzailea izan zen, eta, besteak beste, Elgoibarko Ikastolaren alde lan egin zuen, Luis Bilbao senarrarekin batera. Halaber, Elgoibarko Izarra kultur elkarteko kide egin ziren biak elkartearen hasierako urteetan, eta lehendakari kargua ere bete zuten, Bilbaok 1973an eta Oiartzabalek 1977an. Elgoibarko Izarrako estreinako lehendakari emakumezkoa izan zen.

Izaera bizikoa

Elgoibarren jaio zen, 1932an. Aita eibartarra zuen, ikatz-saltzailea; ama, berriz, elgoibartarra, Abatetxe baserrikoa. Oiartzabal bera ere Abatetxan jaio zen, eta, ezkondu arte, Sigman lan egin zuen.

Mojekin egin zituen ikasketak, dena gatzelaniaz, eta, fededuna



Mila Oiartzabal. FAMILIAK EMANA

izanik, Elgoibarko parrokiako lanetan ere aritu izan zen; besteak beste, umeei kristau ikasbidea irakasten.

Izaera indartsu eta umore bizikoa zen, eta solasaldiak zituen maite. Munduan zehar bidaiatzeko aukera izan zuen, eta bidaia haiek baliatu zituen hainbat kultura ezagutu eta bizipenak partekatzeko.

DMP enpresaren eraikina botatzen dihardute, aparkalekuak egiteko

200.000 euroko aurrekontua dauka lanak, eta Danobatgroup Taldeak hartu du bere gain

Ainhoa Andonegi

Astelehenean hasi zituzten DMP enpresaren eraikina eraisteko lanak. Elgoibarko Udalak eta Danobatgroup Taldeak sinatutako hitzarmenaren barruan kokatzen da obra hori: 200.000 euroko aurrekontua izango du eraistek, eta hori Danobatgroupek hartuko du bere gain. Horren ostean, Udalak alokairuan hartuko du lursaila, eta aparkalekuak egingo dituzte. Udaleko ordezkariak aurreratu dutenez, oraindik ezin dute zifra zehatzik eman, baina 40-50 bat auto aparkatzeko lekua egongo dela uste dute. "Lursaila hutsik ikusi eta atontzen dugunean

ikusiko dugu zehatz-mehatz zenbat auto sartzen diren", esan du Ion Zubiaurrek, Hirigintza zinegotziak. Uste du herritarrentzako aparkaleku oso erabilgarria izango dela eta Urazandi auzoan dagoen aparkatzeko arazoa arinduko duela.

Elkarlana

Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak adierazi duenez, azken urteetako elkarlanaren emaitza da proiektu hori: "Gure esker ona adierazi nahi diogu Danobatgroupi, gure herria hobetzeko egiten duen lanagatik. Guretzako garrantzitsua da industriarekin lankidetzan ari-



DMP eraikina. ASIER ORBEA

tzea Elgoibarrek aurrera egin dezan".

Era berean, Julian Aizpurua Danobatgroupeko lehendakariak esan du inpaktu soziala eta inguruan transformazioa erraztea eta aberastasuna sortzea direla taldearen helburuak, jasagarritasunaren eta konpromiso sozialaren alde egiteko.

Horren harira, Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkio Danobatgroupi, proiektu hori

eta beste hainbat posible egiteko erakutsi duen prestasun eta laguntzagatik. Izan ere, DMP eraikinaren eraisketaz gain, Mintxetako gimnasioa berritu eta handitzeko 125.000 euro inbertitu ditu Danobatgroupek, eta beste 50.000 euro herrira bideratu dituzte, merkataritxikiei laguntzeko lokal bat atontzeko. Komun publikoak eta armairuak jarriko dituzte lokal hartan, denda-or-

dutegian erosketak egin ezin dituzten herritarrei erosketak bertan lagatzeko. Hala, aurreantzean ere elkarlanean aritzeko prest daude bi aldeak.

Ger eta DMP

Eraikin hartan Ger enpresa egon zen lehenengo, eta, hura Itziarko industrialdera lekualdatu zutenean, DMP enpresak hartu zuen eraikina. 1999tik 2003ra arte iraun zuen han.

Musika eskolako ikasleek hartuko dute parte 'Xirribit' ikuskizunean

A.A.

Elgoibarko Izarraren Atxutxia-maika aisialdi taldeak eta Inazio Bereziartua musika eskolako *Xirribit* emanaldia antolatu dute domekarako, Udalarekin lankidetzan. Euskal Barrok Ensemble taldearen lana da ipuin musikatu hori, Juan Kruz Igerabidek idatzitakoa. Biolin-irratxoak izango du protagonismoa.

nista, eta harekin batera agertuko dira laminak, Ilargi, Euskelele eta Xirribit. Maika Etxekopar ipuin-kontalariak jarriko du ahotsa eta hura izango da narrazioaren arduraduna. Musikaren sortzailea Enrike Solinis izan da, eta, hain zuzen ere, antzinako zein egungo doinuekin jantziko dute kontakizuna.

Korua eta dantzariak

2024an *Euskelele* ikuskizunarekin etorri ziren, eta, orduan bezala, aurten ere musika eskolako ikasleek hartuko dute parte emanaldian. Koruko ikasleek hainbat kanta abestuko dituzte, Silvia Hernandezek zuzenduta, eta dantza ikasleek ipuinari egokitutako hainbat dantza egingo dituzte. 50 bat ikasleek hartuko dute parte. 16:30ean izango da emanaldia, Herriko Antzokian, eta sarrerak salgai daude da-goenekeo, herrikoantzokia.eus webgunean.



Euskelele ikuskizuna. A.A.

Barrena[®]
 Jarri ezazu zure publizitatea
 BARRENA astekarian
 edo
www.barrena.eus webgunean
943 743 704
688 769 657
 Galdetu prezioak eta
 gustura erantzunago ditugu

LAGUNAK
 colchoneria textil hogar

TEMPUR PRO berria,
 benetan konpontzailea den
 atseden batetaz gozatu ezazu.

Presioa arintzeko
 propietate frogatuak.

Euskarri eta erosotasun
 absolutua eskaintzen du.

Gorputzaren formara,
 berora eta pisura
 primeran egokitzen da.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
 943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUU24T64ES
ARROPA GARBIGAILUA

469 € **A++ A**

- 9 Kg karga
- 1.200 bira/min

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

Mendaro Martxan sortu dute, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biziberritzeko

Hamaika bazkide ditu elkarteak, baina atea zabalik du gehiagorentzat

Ainara Argoitia MENDARO

Kontsumo-ohituen eraldaketa, biztanleriaren zahartzea eta kanal digital berrien zein kanpoko merkataritza-guneen lehia gero eta handiagoa da, eta testuinguru horretan sortu dute Mendaro Martxan elkarteak, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biziberritzeko asmoz. Mendaroko Udalaren ekimenez sortu dute elkarteak, Dendaroan Gipuzkoako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkartearen laguntzarekin eta herriko bertako merkatariekin elkarlanean.

Aspaldikoa da kezka, eta ahalegin bat baino gehiago egin dituzte Udalak eta hirugarren sektoreko langileek eurek tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biziberritzeko. Horren harira, Plangintza Estrategikoko bat jarri zuen martxan Udalak



Diagnosiaren emaitzen berri emateko bileran batutakoak. MENDAROKO UDALA

2025eko udaberrian. Bi fase zehaztu zituzten: bata, egoeraren diagnosia egiteko; eta bestea, ekintza-plana diseinatzeko. Lehenengo fasean, inkesta bat zabaldu zuen Udalak, herriko merkataria, ostalari eta zerbitzueta-

koek nahiz herriko kontsumitzaileek eta kontsumitzaile potentzialak izan zitezkeenek bete zezaten. Diagnosi-txostena osatu zuten horrekin, eta joan den urtarrilaren 29an aurkeztu zizkieten emaitzak interesatuei.

Diagnostikoak "agertoki konplexua" erakusten zuen, baina, aldi berean, "aukera esanguratsuak" ere bazekartzan. Hiru ziren indargune nagusiak: gertuko tratu eskaintzen duten merkataria profesionalak daudela herrian, bezero fidelak dituztela eta herriak izaera hurbila duela. Ahulezietan, berriz, honako beste puntu hauek identifikatu zituzten: merkataritza-eskaintza mugatua zela Mendaron, gastu-ihesa eta kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko zailtasunak zituztela merkataria, ostalari eta zerbitzueta-koek. Aukerak eta mehatxuak ere atzeman zituzten. Aukeratzat ikusten zituzten, esaterako, hauek: biztanleria flotatzailearen potentziala aprobetxatzea, enpresen arteko lankidetzak sustatzea, online salmenta eta sustapen digitala txertatzea, eta Mendaro bereiziko duten nitxo espezifikoak garatzea, tokiko produktuekin eta hurbileko turismoarekin lotuta. Eta mehatxuetan, establezimenduen titularren zahartzea, merkataritza-guneen lehia gero eta handiagoa eta belau-naldi-erleborik ez izateko arriskua.

Elkartuta, indar handiagoa

Diagnostiko horretatik ondorioztatu zuten Mendarok egutira bateratu bat behar zuela herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak dinamizatzeko, eta elkarte bat sortzea adostu zuten, besteak beste, instituzio publikoek eskaintzen dituzten dirulaguntzetara aurkeztu ahal izateko. Gaur egun, hamaika establezimendutako jabeek osatzen dute elkarteak, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela izena eman nahi luketen gainerako establezimenduak hartzeko. Eta animatu ditu Udalak horiek bazkide egitera, batasunak indar handiagoa ematen dielakoan merkataritzaren aldeko ekimenei. "Elkarte sendo batek aukera emango du herriko merkataritza txikiari bizitasun handiagoa emateko, negozio txikien lehiakortasuna hobetzeko eta gure herriko biziarentzako hain garrantzitsuak diren establezimendu horiei etorkizunerako perspektiba hobek zabaltzeko", zabaldu dute. Mendaro Martxan elkarteak Jaurilaritzako Merkataritza-Laguntza Euskal Sareko teknikarien laguntza ere jasoko du.

Inauterietako play-backerako izena emateko azken eguna, otsailaren 9a

Eskola-umeek ostiralean ospatuko dituzte Inauteriak, baina jai handia zapatuan izango da herrian

A.A. MENDARO

Astebete baino ez da falta Inauterietarako, eta herriko eragileek lotuta dute egitaraua. Eskola-umeek otsailaren 13an, ostiralean, ospatuko dituzte Arastuek. 15:00etan kalejira iritetekoak dira eskolatik, eta 16:00etarako dira itzultze-koak ikastetxera, han Arno guraso elkarte-koek ogitarteko bana banatuko dietelako. Eguraldiak lagunduko ez balu, ikastetxera mugatuko lukete ospakizuna.

Inauterietako egun handia, berriz, zapatuan izango da Mendaron. Azken urteetan indar handia hartu dute Inauteriek herrian, eta goiz-goizetik kua-drilla osoak irten ohi dira moztortuta. Aspalditik daude hartuta herriko elkarteak eta tabernak bazkaltzeko, eta, beraz, jai giroa ziurtatuta dago, baina jaia laguntzeko egitaraua osatu

dute Udalak, Arno guraso elkarteak eta Bizi Poza txarangak-koek. Hasteko, 12:30ean, kalejira hasiko dute txarangak-koek herrian barrena. Arratsalderako, eta azken urteetan ohitura bihurtu den eran, play-back lehiaketa antolatu dute Arno guraso elkarte-koek, Udalaren laguntzarekin, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak mezu bat idatzi beharko dute *ekintzakarno@gmail.com* helbidera, honako kontu hauek zehaztuta: taldearen izena, zenbat partaide izango diren taldean eta zein adinetakoak, harremanetarako kontaktu bat eta aukeratutako abestia MP3 formatuan. Otsailaren 9a da izena emateko azken eguna. Play-backa hasi aurretik, txokolate beroa banatuko dute guraso elkarte-koek, frontoian.

Sabela, asea; eta eztarria, osasuntsu

Otsailaren 2a, Kandelario Eguna; otsailaren 3a, San Blas; eta otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera. Ohitura da eguna luzatzen hastearekin batera hiru egun horiek ospatzea, eta hala egin dute asteon Mendaron. Martitzenean, San Blas opilak eta kordelak bedeinkatu zituzten Trinitate basilizan, eztarriak sano mantentzeko. Hala komeni da, zapatuan santa eskera irteko.



A. ARGOITIA

Aitor Etxeberría Egiguren artistaren lau lanekin osatuko ditu Etxerat elkarteak aurtengo Kinkea promozioak

2018. urte bukaeran sortu zuen Etxeraterako Kinkea egitasmoa, hein handi batean preso osasunerako arreta eta asistentzia juridikoa finantzatzeko. Eta martitzenean aurkeztu zuen Astigarragan 2026rako Kinkea. Aurten, lau promozio egiteko asmoa dute, eta kinkea promozio bakoitzeko 20.000

artelan salduko dituzte. Aurtengo artelanak Aitor Etxeberria artistak egindako pintura akrilikoak dira, pandemia betean Donostian izan zuen *Morphosis* erakusketan ikusgai izan zituenak.

25 euroan salduko dituzte Etxeberriaren ilustrazioak, eta erosle bakoitzak boleto bat jasoko

du trukean, zozketa batean parte hartzeko. Lau zozketa egingo dira urtean zehar: martxoaren 21ean, ekainaren 21ean, irailaren 21ean eta abenduaren 21ean. Zozketa bakoitzean, 20.000 euroko sari bat, 5.000 euroko bi sari, 1.000 euroko hamar sari, 300 euroko 40 sari eta 100 euroko 60 sari zozketatuko dituzte.



Iazko tailer irekia, Hartza Egunekeko koko-jantziaren txanoa egin berritan. JUANMI BRAVO



2023ko tailer irekia, Anaitasunan. J.B.



Ongarai eskolako Gurasolagun saioa. J.B.



23. Korrikaren bueltako saio irekia, Lobianon. J.B.

Hogei urtez gurasoen eta seme-alaben artean euskarazko harremanak ehuntzen

Gurasolagunek urteko lehen saio irekia egingo dute gaur, Hartza Egunari lotua

Ander Gomez ERMUA

Ermuko Berbalagunen lehen taldea 2001-2002 urteen artean sortu zen, eta, berehala, seme-alabekin batera aparteko taldeak sortzeko beharra ikusi zuten: "Umeek eskoletan lortutako eza-gutza handia zuten, baina erabilera ez zetorren euskara mailarekin bat". Horrela, 2005-2006ko ikasturtean jaio zen Gurasolagun.

Talde gehiagorekin edo gutxiagorekin, bizirik mantendu da hogei urte hauetan. Juanmi Bravo koordinatzaileak dioenez, "ziklikoa" da: iaz, talde bat zegoen eskolako; aurtan, bi daude aktibo: Ongarai-Anaitasunakoa, sei familiarekin, eta San Pelayokoa, lau familiarekin. San Lorenzokoa sortzeko bidean dago: hiru familia apuntatu dira, eta lau da gutxieneko kopurua. Taldeak desgitearen arrazoiaren artean adina dago, 4-8 urteko umeekin egiten

delako: "Adin tarte egokiena dela uste dugu; hortik aurrera, etxera baino gehiago, kanpora begiratzen hasten dira, lagunekin egon nahi dute".

Astean behin, eskolako irteera-eta askal-orduak aprobetxatuz, eskolan edo inguruetan elkartzen dira gurasoak. Ordubetez euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dute, bai umeekin, bai euren artean. Izan ere, azken hori da gako nagusienetakoa: umeek euskara praktikatzearaz gain, helduek ere euren artean egiten dutela ikustea, "euskarak komunikatzeko balio duela gaztelaniak beste, ez gehiago, ez gutxiago".

Orokorrean, familiak bakarrik elkartzen dira, eta noizean behin arduradun baten bisita izaten dute. San Pelayoren kasuan, iaz batutako ikastetxea eta A eredukoa izanik, tutore batekin egiten dira saio guztiak, eta

umeek jokoan bitartez ikasten dituzte zenbakiak, koloreak eta oinarritzko hiztegia.

Gurasolagun irekiak

Ohiko saioez gain, urtean hiruzpalau saio ireki antolatzen dituzte, edozein familiak –aldian behin bada ere– batzeko aukera izan dezan. Gertuko festa bat aukeratu ohi da eta horren inguruko eskulan bat egiten dute umeek eta gurasoek batera. Gaur, otsailak 6, Hartza Egunekeko koko-jantziak egiten arituko dira Lobianon, 17:15etik 18:30era. Hurrengo saioa martxoaren 13an izango da, eta Korrikaren lekukoa egin eta baruruko mezua idatziko dute.

Gurasolagunen ekintza guztiak doakoak dira, baina aldeaz aurretik izena eman beharra dago, 663 07 04 92 Whatsapp zenbakira idatzita edo Kaltxango euskaltegira joanda.

"Mundu guztiari" irekitako Txitxiburduntzi Eguna ospatu dute

Inguruko jubiletxeak eta Ermuko elkarte eta ikastetxeak batu dira aurtengo txorizo-jan, txapelketa eta irteeretara

A. Gomez ERMUA

Ermuko baserritarren ohitura zena kalera ekartzeko asmoz, Txitxiburduntzi Eguna antolatu zuen iaz Pasialeku Jubilatuen Etxeak. Harrera itzela izan zuen, nagusiak ez ezik adin guztietako herritarrak erakarrit. Euskal Telebista ere izan zen, eta zuzenean eman zuen festaren berri. Horrela, atzo ospatutako bigarren ediziora Eibarko eta Elgoibarko jubiletxeak eta Ermuko hainbat elkarte gonbidatu zituzten, txorizo-janera zein egunean zehar antolatutako ekintzetara.

Urtarrilaren 29ra arte zegoen txorizo tiketak erosteko aukera, eta 450 saldu ziren. Hala ere, gutxi batzuk gehiago saldu zituzten atzo, izakinak agortu ziren arte. Azken txorizoak dastatzeko pribilegioa petanka txapelketako irabazleek izan zuten, sari bezala. Horrez gain, lagunarteko lehia egin zuten Martxoaren 8a plazan jarritako igelaren jokoan.

Zozketa, lehiaketa eta ibilbideak Berritasun bezala, Mugartea pintura taldekoen koadro bat zozkatu zen pintxoia erosi zuten guztien artean, eta mugikorrarekin ateratako argazkien lehiaketa ere

antolatu zuten. Oraindik argazkia aurkeztu ez dutenek, 693 59 23 13 Whatsapp zenbakira bidali dezakete, formatu horizontalean, izenburuarekin eta egilearen izen-abizenekin. Argazki irabazleak markoan jarri eta jubiletxean zintzilikatuko dute.

Bestela, iaz bezala, bi ibilbide egin zituzten: Aixolako urtegarako joan-etorria, 11,5 kilometrokoa eta maila ertainekoa; eta herriguneko *Jane's Walk*-a, maila errazekoa. Azken horretan, Ermuko historia ezagutzeko eta aldaketen inguruan hausnartzeko aukera izan zuten: *Ermua, ibai gainean eraikitako hiria; Herriko komertzioa, eboluzioa; Periferia, familia askoren lehen harrera-gunea; Tren-geltoki zaharra eta berria...* askotariko gaiak landu zituzten bidean. Urtegarako ibilaldira 105 pertsona apuntatu ziren eta *Jane's Walk*-era, 85.

Jubilatuak ikasleekin batera

Borobiltzeko, ikastetxeetako umeak batu zitzaizkien: San Pelayoko 30 ikasle joan ziren urtegarira eta 40 ikasle aritu ziren petankan eta igel jokoan. Gero, Eskolabarriko beste 50 ikasle elkartu zitzaizkien, txorizoak erre eta bapo jateko.



Jubiletzeko bazkideak lehen edizioan, txitxi-buruntzia eskuan, jateko prest. A.G.



lazko Hartza Egunean parte hartu zuen lagun kuadrilla, azken koplak abesten plazako aterpean. A. GOMEZ

Koko-jantziak soinean, kantuan eta dantzan emango dituzte Aratuste egunak ermuarrek

Otsailaren 12tik 17ra bitartean ospatuko dira Ermuko Aratustek

Ander Gomez ERMUA

Ermuko Udaleko Kultura Sailak aurtengo Aratusteetako irudia izango den kartela eta egingo diren ekintzen programa osoa aurkeztu du. Kartela, urtero bezala, lehiaketa bidez aukeratu da. 232 diseinu aurkeztu dira, eta epaimahaiak hartza eta oilarra elkartzen dituen aukeratu du, azaldu dutenez, "Inauterietako bi protagonisten arteko samurtasunaren eta elkarbizitza-espirituaren irudia proiektatzen duelako". Egilea Tuteran jaio baina Tarazonan (Zaragozan) bizi den Edurne Cacho Martinez ilustratzaile eta muralgilea da, eta egindako lanarengatik 600 euroko saria jaso du. Artistak dio "sinetsi ezinda eta pozez zoraturta" jaso zuela Udalen deia, eta Ermukoa bezalako errekonozimenduek ematen diotela gustuko jardunean aritzeko aukera.

Eguen Zuri eta Hartza Eguna

Karteleko bi protagonista horiek emango dieten hasiera Ermuko Aratusteei. Otsailaren 12an, 16:00etan, oilarra aterako da plazara, eta ikastetxe guztietatik zozketaz hautatutako umeak arituko dira Oilarraren Jokoa. Makila eskuan, begiak estalita eta lagunaren argibideak jarraituz,

haren kutxa ukitzen saiatuko dira. Irabazleek garaikurra eta herriko dendetan liburuak eta eskolako materiala erosteko bonuak jasoko dituzte. Ondoren, Xaiborren DJ festa izango dute, eta 19:00etan, Ermuan Kantuanen kalejira izango da. Gazte Asanbladakoek kolore zuriko mozerroekin janztera gonbidatu dituzte herritarrek.


Barikuan, Txindurrikoek Urkora igo eta kobazulotik aterako dute hartza. 18:30ean pregoia botako dute udaletxetik eta kantu-jirari ekingo diote. Aurten, San Lorenzo eskolako umeak arduratuko dira

piztia zaintzeaz, ibilbidean zehar ihes egin ez dezan.

Mozorro lehiaketaz, musikaz eta dantzaz beteko da plaza

Gainontzeko egunak mozerroen originaltasuna erakusteko eta dantzatzeko izango dira. Otsailaren 14an, zapatua, 12:30ean, kuadrillen mozerro desfilea egingo dute –izen-ematea kultura@udalermua.net helbidera idatzita edo egunean bertan plazan egin daiteke–, eta bazkaria eta antzokirako sarrerak izango dira sariak. 19:00etan jakinaraziko dituzte irabazleak, eta, ostean, umeen mozerro lehiaketa egingo dute, banakako eta taldekako kategorietan. Lehiaketa bien ostean Irulitxa txarangak giro-tuko ditu kaleak. 17:00etan, txokolate beroa banatuko dute eta umeentzako bi saio berezi egingo dira: Zirika Zirkusen dantzaldia lehenengo eta Maximunsen disko-festa gero, 19:30 aldera. Gauean, Los 40ren DJ festak hartuko dio lekukoa, 23:00etan.

Aratuste-martitzenean, otsailaren 17an, umeen diskotekarekin hasiko da festa, 16:30ean. Iluntzean, 19:30ean hasita, Begibide taldearen erromeria egongo da, eta 23:00etan hasiko den Oihan Vegaren disko-festak borobilduko du Ermuko Aratusteetako azken gaua.



2026ko kartel irabazlea. EDURNE CACHO



Hartzaren lehen agerraldia Ermuan, 1934an. ERMUKO UDALEKO ARTXIBOA

Hartzaren sorrera, loaldia eta itzulera

Estibalitz Gonzalez ERMUA

1934ko aratusteetako martitzenean atera zen hartza estreinako aldiz lagun artera: ardi-narru batzuekin mozerrotu zuten bat eta arropa zaharrekin –hau da, koko jantzita– atera ziren gainontzekoak. Esku artean gitarra, tronpetak, turutak... Ikasi berri eta katurako prest zituzten ere Gillermo Bengoetxea Txindurri bertsolariak eurentzako sortutako lau koplak: inguruko mendietan agertu zen piztiaren gainekoak eta Mallabiko Mañako lezan harrapatzeko egindako komeriak kontatzen zituztenak.

Herrian zehar kalejira luzea egin zuten, eta diru dezente batu. Bazuten nori eman, gainera: tuberkulosi gaixotasunarekin oso makalik zegoen gazte baten familiari. Gaitz oso kutsakorra zen, sendatzeko tratamendu garestia behar zuena, eta edozeinen eskura ez zegoena, gainera. Pegoraz pegora eskean eta Ermu osoan kantari ibili ostean, 1.000 pezeta batu zituzten. Dirutza galanta izan zen sasoirako, kontuan izanda 1934. urte hartan 1.100 biztanle zituela herriak; beraz, pertsona bakoitzeko ia pezeta bana jaso zuten. Gaur egun, 15.539 biztanle ditu Ermuak, eta, herritar bakoitzak euro bana eman izan balu, pezetatan ia 2,6 milioi izango lirateke.

36ko gerraren osteko urteetan debekatu egin ziren Inauteri, Aratuste eta mozerrotzeok, baina herritarrek akorduan gorde zituzten hartzaren bertsoak.

Mende erdiko loaldia

1990ean berreskuratu ziren, eta, belaunaldi desberdinek ikasita, gaur egun bizirik jarraitzen du hartzaren kantu-jiraren magiak, Euskal Birusaren, Txindurri Txistu eta Dantza Taldearen, Alboka Musika Eskolaren eta Ermuko ikastetxe guztien laguntzarekin. Negualdia bere kobazuloan emanda, bariku arratsaldean gogotsu azalduko da hartza jendartera.



MUSIKA ESKOLA
943 17 12 98

Abesbatza	Gitarra	Perkusioa
Banda	Gitarra elektrikoa	Pianoa
Biolina	Gitarra baxua	Saxofoia
Biolontxelo	Musika Hizkuntza	Trikitixa
Flauta	Klarineta	Tronboia
	Panderoa	Tronpetak

albokamusikaeskola@hotmail.com



Ekinez ekin bidean darrai

"Ikuskizun honekin, gure konfort-zonatik atera nahi genuen"

EDU MURUAMENDIARAZ AUKERAN DANTZA KONPAINIAREN ZUZENDARIA

Dorleta Vidal

Otsailaren 7an, larunbata, *Amama* ikuskizuna eszenaratuko du Aukeran dantza konpainiak Ermua Antzokian, 17:00etan. Edu Muruamendiara (Bergara, 1964) dantzariak sortutako konpainiak 30 urte beteko ditu datorren urtean, eta, lehen aldiz, umeei zuzendutako ikuskizuna eskaintzen dihardu. Askotariko diziplinek beteko duten antzeztokian zortzi dantzari eta aktore bat egongo dira, umeen eta, baita ere, nagusien gozamenarako.

Zer da *Amama*?

Dantza ikuskizuna da, eta zazpi herrialdeetako ipuinak kontatzen ditu, euskal dantzetan oinarritutako koreografiaren bitartez. Familia guztiari zuzendutako saioa da, eta egokia da 4 urtetik gorako umeentzat.

Aukeran konpainiak 30 urte beteko ditu 2027an, eta, lehen aldiz, umeen munduan murgildu da *Amama*-ekin. Zer dela-eta erabaki duzue erregistro berri batean jardutea? Gure konfort-zonatik atera nahi genuen, eta bestelako ikuskizuna sortu.

Lan handia izan da umeen munduari hurbilketa hori egitea?

Lan handia izan da, bai, izugarrizko erronka. Zerbait berezia eskaini nahi genuen, ez bakarrik dantza, baizik eta ikuskizun ederra bere osotasunean. Umeen-tzako denez, lan errazagoa dela eman dezake, baina garbi neukan ikuskizun aparta sortu behar genuela, gastuei erreparatu gabe. **Zein izan da prozesu horren alderik zailena?**

Hiru gauza aipatuko nituzke: umeen munduan murgiltzea, antzerkia egitea eta maskarekin dantzatea.

Eta zerk eman dizue poztasunik handiena?

Umeen poztasunak: emanaldia bukatutakoan neska-mutil horiek nola ateratzen diren ikusteak. Gozatu egin dutela sumatzen dugu.

Zer-nolako ikusleak dira umeak?

Exijenteak eta zorrotzak. Ez bazaie zerbait gustatzen, segituan adierazten dute.

Zaila da haien arreta mantentzea?

Zer-nolako pisua daukate jantziek,



Amama-k askotariko elementuak nahasten ditu umeen arreta bereganatzeko. DAVID HERRANZ

musikak eta argiek horrelako saio batean?

Oso zaila da umeak adi egotea, baina, azkenean, askotariko diziplinak lantzen dituen saioa da: jantzi ederrak ditugu, maskarak erabiltzen ditugu ipuinak hobeto ulertzeko –azeria, txakurra, txoria, herensugea...–, kontakizunarekin zerikusia daukaten irudiak jartzen ditugu atzean, antzerkia dago, dantza, musika alaia... Gauza horiek guztiek umeen arreta gureganatzen laguntzen digute.

Zaila egin zaizu zure ohiko jarduna beste adin batera egokitzea?

Bai. Emanaldi horrek ez dauka zerikusirik orain arte egin dudana



Edu Muruamendiara koreografoa. E.M.

ezerekin, baina zortea izan dut, talde profesional bikaina dudalako ondoan, eta lana erraztu didate.

Diziplina askotariko esperientzia eskaintzeaz gain, badago umeei helarazi nahi diezun mezurik?

Bai, ikuskizunaren helburua haurrak dantzaren mundura erakartzea da, haiek dira-eta dantzaren etorkizuna.

Ohikoak dira horrelako ikuskizunak, dantza eta haurtzarora uztartzen dituztenak?

Ez dira ohikoak, baina poliki-poliki horra bideratu behar ditugu, esan bezala gure etorkizuna direlako.

Aurrera begira, umeen ikuskizunak lantzeko bide horretan jarraitzeko asmoa duzue?

Ez nuke ezetz esango, baina gaur egun konpainiak daukan erronkarik handiena da maiztaren 14tik 17ra bitartean egingo den Leioako Umore Azokan aurkeztuko dugun *ADK 3.7 Dualtasuna* kale-ikuskizuna prestatzea. Horrez gain, datorren urtean gure 30. urteurrena behar bezala ospatu nahi dugu, eta, hain zuzen ere, prestateta-lan horietan ere buru-belarri gabiltza.

Isabel Garcia ermuarraren margoak ikusgai izango dira Lobianon

Erakusketak berrogeita hamar koadro baino gehiago batzen ditu, guztiak olio-pinturak

D. Vidal

Otsailaren 2an inauguratu zen Isabel Garcia Vicente margo-lari ermuarraren *Alegría y tristeza* erakusketa Lobianon, eta guztira berrogeita hamar koadro margolan ikusi daitezke bertan. Oihal gaineko olio-pintura horiek genero askotarikoak dira, eta tartean daude erretratu ugari eta paisaia gutxi batzuk, margolariaren gustuko gaiak agerian jartzen dituztenak; era berean, koadro abstraktuak, etnikoak, hiperrrealistak eta fantasiakoak daude ikusgai. Horiek guztiek erakusten dute Garciaren bizitza semea bizirik zegoenean eta zendu eta gero, eta, hain zuzen ere, gertaera harekin lotuta dago erakusketaren izenburua.

Margolari autodidakta

Koadro horiek hainbat garaitan sortuak izan dira: batzuk duela urte dezente eta beste batzuk duela bi hilabete; eta Garciari lagungarriak izan zaizkio aurrera egingo jarraitzeko. "Margotzeak aukera ematen dit errealitatetik deskonektatzeko eta hobeto sentitzeko, eta gaur



Garcia, *Volar* margolanaren ondoan. D.V.

egun bide horretan nago", aitortu du pintoreak.

Isabel Garcia autodidakta da, eta, azaldu duenez, bizitza osoa darama margotzen, "burura datozkion" gaiak ardatz hartuta. Hartara, hori da egileak Ermuan egin duen hirugarren erakusketa. *Alegría y tristeza* otsailaren 15era arte egongo da ikusgai Lobiano Kulturgunean, ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara bitartean eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara bitartean. Sarrera doakoa da.

EHZ ibilbidearen 15. etapa egiteko aukera eskainiko du Artarraik bihar

D. Vidal

Bihar, otsailak 7, Nafarroara irteera egingo du Artarraik Mendiko Taldeak. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Zeharkaldia ibilbidearen 15. etapa egiteko irteera prestatu du taldeak, Auritzetik Hiriberrira doana. Ibilaldi horrek 18 kilometro eta 600 metroko desnibela ditu, eta, antolatzaileen arabera, sei orduan egin daiteke.

Zeharkaldi horrek zailtasun maila txikia duen arren, Artarraik ibilbide motzagoa egiteko aukera emango die parte-hartzaileei: Ibañetatik Orreagara doana, Ortanzurieta igarota. Ibilbide horrek 11 kilometro eta 640 metroko desnibela ditu,

eta asko jota bost orduan bukatu daitekeela uste dute taldekideek.

Doako ekintza

Bi ekintza horietakoren batean parte hartu nahi duten kirolariek aldeztu aurretik eman behar dute izena, artarraik.blogspot.com helbidean dagoen QR kodearen bitartez, eta larunbatean Agirre Kirolak ondoko autobus geltokira joan beharko dute, goizeko zazpitan. Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute doako ekintza den arren autobusa ordaindu beharko dela: 10 euro Artarrairen bazkideek eta 12 euro bazkideak ez direnek, hain zuzen ere.



Frontoietatik kanpo, bereziki naturan egotea gustuko zuen Ander Martinek. U. MARTIN

Borrokalaria Eguna ospatuko dute martxoan, Ander Martin Estenagaren omenez

Behin-behineko egitaraua aurkeztu dute eta bazkariko tiketak salgai daude jada

Ander Gomez MALLABIA

Iazko uztailaren 29an zendu zen Ander Martin pilotari eta pilotazale mallabitarra, 47 urterekin. Gazte joan zen arren, haren pasioei dedikatutako bizitza bete-betea izan zuen, eta horren erakusle garbi dira urte erdi eskasean pilota-munduan zein kanpoan egindako lagunek egin dizkioten errekonozimendu eta omenaldiak. Lehena abuztuko Mallabiko jaietan izan zen, udal-letxean, eta Durangoko sanfaus-toetan ere omendu zuten bertako pilota elkartekoek. Azken hartan, euskal selekzioko eta Federazio-ko kideak egon ziren, senideek oroigarria jaso zuten eta erakus-taldi-partida jokatu zuten Titin III.a-Antxia eta Agirrezabal-Mikel Goñi pilotariek. Urriko jaietako ohiko elizpeko txapelketari

Ander Martin Memoriala izena jarri zioten, eta Pelotari Kemen-tsuena saria gehitu zuten haren omenez. Txapeldunorde geratu zen Xabat Uzuriagak irabazi zuen, eta Anderren amari oparitu zion, Maria Jesus Estenagari.

Aurten, ekitaldi gehiago prestatzen ari dira hainbat toki eta elkartetan. Lehena, eta ziur asko potoloena, martxoaren 14koa izango da, familiak eta lagunek Mallabian bertan antolatutako egun osoko jaia izango da eta. Elizpeko txapelketako sariarekin egin bezala, Martin II.aren nortasuna "hoberen" islatzen zuen hitzarekin izendatu dute: Borrokalaria Eguna, "hori baitzen haren izateko era, bai frontoian, bai bizitzan", dio Unai Martin anaiak.

Goizetik gauerako ekintzak egongo dira, eta gehienak Mar-

tinen zaletasunen arabera aukeratu dituzte. Pilotaz gain, dantzara lotuta egon zenez txikitatik, harekin aritzen ziren lagunen eta egungo Gazte Alai taldeko umeen dantza erakus-taldiekin irekiko dute egitaraua. Ondoren, txapelketak hasiko dira: gisasolatarrek herri-kirol materiala jaitsiko dute eta harri-jasotze, txinga eta txokor-batzean arituko dira kuadrillako lagun guztiekin batera; mus txapelketa ere jokatu da; eta

"Anderren izaerak jarri dio izena egunari, borrokalaria zelako, bai frontoian, bai bizitzan"

pilotalekura bisita ez da faltako, non eskolako umeek eta Martinen zaletasun nagusia partekatzen duten guztiek jokatu ahal-ko duten. Ekintzak egin bitartean, musika ere ez da faltako: Beñat Ugartetxea eta Arkaitz Estiballes bertotan arituko dira, eguerdian triki-poteoa egingo dute, arratsaldean Burrumbada elektro-txaranga irtengo da kalera eta gauean kontzertu sorta ederra egongo da parkean. Oraingoz, konfirmatuta dauden taldeak dira Apokalipsis, Dezein eta Storbais. Horiez gain, kontzertu akustiko berezi bat prestatzen ari direla aurreratu dute, gonbidatu bereziekin.

Bazkariko tiketak salgai

Egun osoko festa izanda, herri bazkaria ez da faltako. Mallabia I.a Pilotalekuan egingo da eta tiketak sagai daude dagoeneko, pilotalekuan bertan, Idoiaren dendan, Herriko Tabernan eta Jubiletxean. Bertaratu ezin dutenek 666 38 51 70 zenbakira *whatsapp*-a idatzita erreserbatu ditzakete. Umeentzako makarroiak eta haragi-bolak egongo dira; eta nagusientzako, marmitakoa eta haragi-bolak. Txikien menuak 15 euroko kostua du, eta helduenak, 25 eurokoa.

Errifak jarriko dituzte salgai, eta "sari potoloak" agindu dituzte; tartean, Eibarko Euki Aholkularitzak emandako bi sarrera martxoko pilota finala ikusteko. Jasotako dirua eguneko gastuak ordaintzeko erabiliko da. Soberan geratuz gero, datorren urtean beste edizio bat egiten saiatzeko gordeko dute; izan ere, hori da familiakoen eta lagunen ametsa: Borrokalaria Eguna urteroko hitzordu bihurtzea, Ander Martin pilotazalea eta pertsona herriaren memorian mantentzeko eta haren bizitza ospatzeko.



Iazko Aratuste-martitzenean. V. MUGARZA

Bihar hasiko dira Aratusteak, eta hamar egun iraungo dute

A.G.

Otsailaren 7tik 17ra bitartean, Udalak eta herriko hainbat kolektibok antolatutako ekin-tzez beteko da herrigunea.

Bihar, zapatua, parkeko txitxi-burruntziak irekiko du egitaraua, 19:00etan. Guraso Elkar-teak gogorarazi duenez, nork bere makila, txorizoa eta ogia eraman beharko ditu, eta Udalak sua eta umeentzako edaria jarriko ditu.

Datorren astean, Eguen Zuri egunean, umeak eskolatik aterako dira 12:00etan, eta, Olen-tzeroren eta Mari Domingiren etorreran egin bezala, kalez kale ibiliko dira koplak kantatzen. Barikuan, 18:00etan, 12 urtetik gorakoentzako petanka txapelketa jokatu da pilota-lekuan, AD Mallabia FTk antolatuta. Zapatuan, 14:30ean, bazkari autogestionatua egingo da bertan, eta herriar guztiak mozorrotuta joatera animatu dituzte. Gero, DJ Track-Ak girotu du arratsa, musika eta pirotekniarekin, 17:00etatik 20:00etara.

Baina egun nagusia azkena izango da, hilaren 17ko Aratuste-martitzena. 14:45ean, Ekain pailazoak ordubeteko ikuskizuna egingo du eskolan, eta 16:30ean, txokolate beroa banatuko dute Guraso Elkar-teko kideek. 17:00etan, Oihan Vegaren DJ-erromeria hasiko da pilotalekuan, eta, tartean, Mallabiko Aratusteetako ekin-tza kuttunenetakoa izango da: play-back mozzorro lehiaketa.



Sendia, txapela, kamiseta eta lore-sorta jasotzen, Durangoko omenaldian. PELOTA DURANGO



Elizpeko txapelketak Ander Martin Memoriala izena hartu zuen joan den urrian. U.M.

Soraluzeko antzinako errebote frontoiko sake-harriaren bila ari dira

Bilaketa horretan aurrera egiteko, botaharriaren argazkiren bat behar dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Soraluzek, XVIII. mende bukaeratik XX. mende erdialdera arte, errebote frontoia izan zuen bote-laxoan aritzeko. Errebote-jokoa "pilotako errege jokoa" kontsideratzen zen orduan. Soraluzeko errebote frontoia Miguel Antonio Jauregik diseinatu zuen, 1788an, eta Egizabal eta Aldasoro familia indianoen diruekin finantzatu zen. Gaur egungo frontoi zaharra eta inguruko kirol-esparrua dira errebotekoaren ondorengoak; esaterako, oraindik hantxe dira errebote frontoiko harmailak.



Soraluzeko errebote frontoia, sake-harriak gabe. SORAPEDIA

Sake-harria edo botaharria

Soraluzeko errebote frontoia bazuen ere bere sake-harria edo botaharria. Frontoiaren "edadea" kontuan hartuta, izan liteke Euskal Herriko zaharrenetakoa hura; Ramiro Larrañaga idazleak Soraluzeri buruzko liburu monografikoan dioen moduan, sake-harriak bi maila zituen eta bazen "kontserbatzeko modukoa bere originaltasunarengatik". Hala ere, harria desagertuta dago XX. mendearen erdialdea ezkerre.



Sake-harriaren marrazkia. IGNACIO PINTADO

Obrak egitean desagertu

Dena dela, hainbatek akorduan dute sake-harria, eta hura bilatzeko ahalegina egiten ari dira; tartean, Agustin Txurruka, Soraluze Pilota Elkarteko ordezkari izandakoa, eta Ignacio Pintado, sake-harria ezagutu, marraztu eta ondo gogoan duena.

Federazioan, museoan...

Soraluzeko sake-harriaren historiari dagokionez, 50eko hamarkadan, Eskola Nazionalak erakitzeke obra egin zuten frontoian, eta orduantxe desagertu zen. Ustez, obra-hondakinekin batera bota zuten harria, eta harrezke-ro galdutzat eman da.

Baina duela urte batzuk, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazio (GEPP) presidente izandako batek Agustin Txurrukari esan zion harri hura txalet bateko lorategian zegoela. Antza, harriaren balioaren jakitun, norbaitek hura hartu, gorde eta

etxeko lorategian jarri zuen, entzundakoaren arabera, Lasarten, baina hori ez dago frogatuta.

Edozein modutan, pista horri tiraka hasi eta hainbat ate jo dira Soraluzeko sake-harria lokalizatzeke: GEPP, San Telmo museoa, Jabi Elortza historia-laria, Villabonako Behar Zana Pilota Elkartea –errebote jokoa-ri buruz gehien dakien kluba... Gainera, Lasarten dagoela pentsatuz, pilota elkartekoak galdezka ibili dira han, baina, oraingoz, ez da emaitza positiborik lortu.

Eskola Nazionalak egiteko obren ondoren desagertu zen Soraluzeko botaharria

Hala ere, atea jotzen segi eta Euskadi Irratiko *Faktoria* irratia zain EITBko pilota-esatari Xabier Euzkitzerengana ere iritsi da sake-harriaren bilaketaren gaineko istorioa; istorio polita irudit, eta laguntzeko erabateko prestasuna erakutsi dute bi kasuetan.

Orain, argazki bila

Are gehiago, Euskadi Irratiko *Faktoria* irratia zain, gaur goizean, barikua, Agustin Txurruka elkarrizketatu du Jon Artano kazetariak, eta lau haizeetara zabaldu dute Soraluzeko botaharria bilatzeko nahia.

Euzkitzeri dagokionez, berriz, sake-harriaren bilaketarako eskaintzen dituen bozgorailuak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko, botaharriaren argazki bat helaraztea komeni da.

Hori horrela, orain, argazkiak lortzeko laguntza eskatu dute. Izan ere, hori ere ez da lortu; Pintadok egindako marrazkia bakarrik dago.

Bila dabilzanak seguru daude herriko argazkilariren baten edo herritarren argazkiren batean azaldu egin behar dela sake-harria, pilotarekin lotutako argazkietan ez bada, bestelakoetan. Esaterako, 50eko hamarkadako ezkontzetan, ohitura zen frontoian sake-harriaren inguruan edo gertu familia-argazkiak ateratzeko.

Bada, norbaitek argazkirik balu, Barrena Komunikazio Taldeari helarazteko dei egin dute, Ubane Madera kazetariari.



Balategietako lanak, eguazten arratsaldean. U.M.Z.

Datozen egunotan zabalduko dute garajeetarako pasabidea

U.M.Z. SORALUZE

Egunotan, SAParen eta Baltegieta kaleko 22. zenbakiaren artean egiten ari diren obren baitan, Gabolatseko zubi pare-raino ailegatuko dira galtzada-harriak ipintzeko lanak.

Behin hara iritsita, egindakoa sikatzen laga, eta ahalik eta lasterren zabaldu nahi dute Baltegieta 18ko eta 24ko garajeetarako sarbidea, Gabolatseko zubitik sartu-irtena eginda.

Obrak egiten ari den Echaide enpresako obra-buru Alvaro Garciak esandakoaren arabera, eguraldiak asko baldintzatzen du lanen aurrerapena, eta nahia-go du data zehatzik ez aurreratu, gero ezin badu bete.

Nahi baino motelako

Garajeetarako pasabidea libre laga ondoren, SAPatik errepiderainoko tartean segituko dute galtzada-harriak jartzen. Esplikatututenez, orain arte bertan zeuden harri berberak jartzen ari dira, baina lehenago harriak garbitzen ari dira, morteroz inguratuta baitaude. Horrek eraginda ere nahi baino motelago ari dira lanean.

Urriaren amaiera aldera hasi ziren kalea zaharberritzeko obrak; 86.219,07 euroko aurrekontua –BEZa aparte– eta sei asteko iraupena zehaztu zituzten, baina obrak luzatu egin dira, batik bat, ur-hodi bat zaharberritu egin behar izan zutelako.

Makina-erremintaren Museora bisita



NIKOLAS MORILLO

*JendartE*KIN egitasmoaren baitan, eguazten honetan Elgoibarko IMH Makina-erremintaren Museoa bisitatzen izan da dozena bat lagun.

Hurrengo hitzordua otsailaren 18an izango dute. *Musika bizi eta musikaz bizi* izenburupean, Iñigo Alberdi Amasorrain musikari eta aditu soraluzetarrak hitzaldia egingo du, 10:00etan hasita, Kalebarren 8ko lokalean.



Plata, Garcia eta Mendo irabazleak, epaimahaikideekin eta udal ordezkariekin.



Herritarrak, lehiaketara aurkeztutako sanblasak jaten. ARGAZKIAK: U.M.Z.



Joseba Gonzalez, isipuearekin sanblasak bedeinkatzen.



Ume batzuk zapi sanblasdunak goratzen, elizan.



Ikastolako andereño taldea, eliza-atarian, kuadrilla-argazkian.

Jendetsu eta giro onean joan ziren San Blas egunaren bueltako ospakizunak

Bedeinkapenean zein lehiaketan jende askok parte hartu zuen

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Martitzenean herritar askok ospatu zuten San Blas eguna. Plaentxi Eskolan jaieguna izan zuten eta goizetik igarri zen ezohiko giroa herrian. 11:00etan hasi zen mugimendua, jendea elizarako bidean, brodatuz dotoretutako mahai-zapian batu-tako opilak eskuan, norbera ere dotore jantzita.

Eliztarren ezusterako, albokak eman zion hasiera elizkizunari, eta "Euskal Herriko instrumentuak" musikatu zuen osorik, ama Soraluzekoa zuen Andres

Elizondo eibartar-elgoibartarraren eskutik.

Elizkizunean, lehenengo, eske egin zitzaion San Blas; batzuetan ezarria trabatzen digun beldur hori eztarritik kentzeko eskatu zion Joseba Gonzalez parrokoak. Segidan, Soraluzeko tradizioari eutsita, ur bedeinkatuz betetako isipua astinduz, sanblas opil eta eliztar guztiak bedeinkatu zituen, elizan gora eta behera eta albotik alboratuz eginez. Amaieran, San Blas zaindariaren inguruan eta eliza-atarian tradiziozko

familia eta kuadrilla-argazkiak atera zituzten.

Inoizko partaidetzarik handiena
Eguerdian, berriz, San Blas Opilen Lehiaketa izan zen. Han ere izan zen ezustekoren bat zein beste. Handiena, partaidetza, inoizko lehiakide gehien izan baititu lehiaketaren XIX. aldiak. Egunean bertan apuntatu ziren gehienak, tantoka-tantoka, hamazazpi lehiakide izan arte. Konparazioa egitearren, iaz zazpi lehiakidek parte hartu zuten.

Epaimahaia osatu zuten Itxaropena elkarteko Joseba Barrutiak, Jose Ayorak eta Lourdes Lizarraldeak. Haiek ere ezustekoa hartu zuten probatu beharreko sanblasak ikusi zituztenean. Baina, dastatze lanak eginda, esan zuten ez zela horren zaila izan irabazleak erabakitzea. Bestalde, sariak banatzerakoan nahasketatxoa izan zen, eta, hasieran, okerreko irabazleak izendatu zituzten, epaimahaiaren puntuazioa beharrean izen-emate zenbakia hartu baitzuten aintzat. Hanka-sartzeaz jabetu, zuzendu, eta honako haiek izendatu zituzten irabazle: Sonia Mendo, Inma Plata eta Ruben Garcia.

Mendo irabazlea lehenago ere saridun izandakoa da. Lehen sari bat, bigarren bi eta hirugarren bat eskuratu izan ditu; haien familiaren errezeta berezi bat erabiltzen dute sanblasak egiteko.

Urduruz eta euskaraz kontatuko dute azken ipuina martitzenean



Andre Nunes da Costa, ipuina kontatzen.

Martitzenean, otsailak 10, Ipuin Ziklo Herritarreko azken ipuin kontaketa egingo dute. Soraluzen urte luzez bizi den Saadia Nasir pakistandarra izango da kontalaria, eta urduz eta euskaraz kontatuko du ipuina. 17:00etan da hitzordua, Liburutegiko Haur Txokoa. Interesa duen edozein joan daiteke.

Ipuin Ziklo Herritarraren baitan aurtien hiru ipuin kontatu dituzte: arabieraz, portugesez eta, orain, urduz. Arrakastatsu joan da ekimena, hitzordu guztietan bete egin da-eta liburutegiko Haur Txokoa.

Sorako ekipo guztiek jokatuko dituzte partidua asteburuan

Asteburu betea dute honako hau Soraluze Futbol Klubean, hura osatzen duten hamar taldeek baitituzte hitzorduak, benjaminetatik hasi eta erregional mailaraino.

Jokatuko dituzten hamar partiduetatik zazpi Ezoziko Futbol Zelaian izango dira. Zapatuan etxean jokatu dute infantil B, kadete 1M eta erregional mailako taldeek. Eta domekan, benjaminek, lehen urteko alebinek, infantil Bk eta gazteek. Gainerako taldeek, kadete go-rengoak, infantil A-k eta bigarren mailako alebinek, kanpoan dituzte hitzorduak.

Ekipo nagusiari dagokionez, berriz, bihar, zapatua, 16:30ean zelairatuko da. Etxeko taldeak Villabonakoa izango du aurkari. Sora hirugarren doa Igocera Faseko sailkapen orokorrean, laugarren eta bosgarren sailkatuekin puntutan berdinduta. Bi partidua jokatu dituzte: bat irabazi eta bestea -azkena- berdindu egin dute.

Otsailaren 15era arte egongo da ikusgai 'Zu hurrengoa - En la diana' erakusketa

Izaro Aulestiarte

Urtarrilaren 31az geroztik ikusgai dago *Zu hurrengoa - En la diana*, Agirre jauregiko erakusketa-gelan. Debako Udalak antolatu du, Bizikidetzatza Batzordearen bidez, "memoria sustatzeko eta gogoeta egiteko" helburuarekin, eta otsailaren 15era arte egongo da zabalik, 17:30etik 19:30era lanegunetan eta 12:00etik 14:00etara asteburuetan.

Gogorarazi dutenez, ostiralean izan zen Indarkeriarik Ezaren eta Bakearen Eskola Eguna, Mahatma Gandhi hil zuten eguna oroitzeko, eta data esanguratsu haren biharamunean inauguratu zuten erakusketa.

Ikerketa baten fruitu

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Baketik Fundazioak egindako ikerketa baten emaitza da *Zu hurrengoa*, eta "motibazio politikoagatik egindako indarkeria eta terrorismo testuinguruan

izandako mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeriak" ezaguturazi nahi ditu. Azaldu dutenez, "herritar askok urte luzez pairatu dituzte ordezkari politikoen aurkako indarkeria, adierazpen askatasunaren kontrako mehatxuak, estortsio ekonomikoa eta ondasunen aurkako erasoak".

Eta errealitate hori ezagutzeko aukera eskaintzen du ekimenak.

Udalak erakusketa ikusteko dei egin die herritarrei. "Helburu nagusia Deban giza eskubideen urraketa mota guztiak ezagutu, entzun eta aitortzea da, herritarren arteko elkarbizitza oinarri hartuta", azpimarratu du.



Joan den larunbatean egin zuten erakusketaren inaugurazio-ekitaldia. DEBAKO UDALA

Bihar iritsiko dira Kaldereroak, Inauteriak gertu daudela iragartzeko

I.A.

Datorren astean murgilduko da Deba bete-betean Inauterietan, baina, alde zaurretik, Hungariako Kaldereroak izango dira protagonista. Bihar, otsailak 7, hartuko dituzte kaleak, zartaginak eta mailuak eskuan dituztela. 19:00etarako jarri dute hitzordua, Agirre jauregiko plazan, eta ordu erdi geroago abiatuko da desfile koloretsu eta zaratzatsua kaleetan barrena.

Hiru geldione

Antolatzaileek iragarri dutenez, hiru geldione egingo dituzte kalejiran: Berasaluze plazan lehenengoa, Plaza Zaharrean bigarrena eta Foruen plazan azkena. Lehenengo bi geldionetan pregoia, abestiak eta dantzak eskainiko dituzte Kaldereroek, eta Foruen plazan egingo dute ondoren emanaldi nagusia.

Aurrez bi entsegu ireki egin ostean, sei abesti eta hiru ko-reografia egingo dituzte aurtien.

2020. urtean berreskuratu zen Deban Kaldereroen etorrera, urte luzez galduta egon ondoren. Eta ekimenak harrera polita izan du azken aldietan. Beste behin ere, Gure Kairi, Udaleri, Kanean Kantuzi, Aitzuri Abesbatzari, Debako Kontalariei eta, besteak beste, Musika eta Dantza Eskolako kideen laguntzari esker egingo da ikuskizuna.



lazko kalejiran ateratako irudia. N.B.A.

NIRE USTEZ

Merezi ote?



UNAI LEKUBE

Arnasestuka dihardu egunak. Modan-edo omen dago. Ez dakit, ba, aurreko hamarkadetan, gazteago – oraindik eta gazteago...– nintzela, ez genuen *mindfulness* eta holakorik ezagutzen. Itxaroten eta

momentua bizitzen ikastea besterik ez genuen. Aspertu egiten ginela? Zeozer asmatu. Ilara luzea aurretik? Ba, zain egon. Ez duzula eskatutakoa lortu? Ba, *aguanta metxa* eta segi.

Noiz ahaztu genuen hori? Orain dena eskura, segundo bakarrean, mila aukera, hamaika energia-lapur egun osoan. Ez dakit laneko exijentziak diren, bakoitzaren etxeko motxilak, edo ze arraio, baina zeinen erraz

gabiltzan mutur-okero edozergatik eta lankidearekin, dendariekin, ilaran gehiegixko tardatzen duenarekin edo espiritu santuarekin mokoka.

Txo, ezezagun batek oraintxe bertan, besterik gabe: "Kaixo, egun on. Dana ondo?". Irribarretxo batekin tontakeria, arnasestu, laino beltz eta umore zakarra ere baretu dizkit derrepentean. Ez da izango hori kontua? Probatzea merezi ote...?

Zabalik dago aurtengo moztorro lehiaketarako izen-ematea

Otsailaren 13ra arte egongo da zabalik Inauterietako larunbateko sarietan izena emateko epea, nahiz eta egunean bertan ere –hilaren 14an– izango den horretarako aukera, 11:00etatik 12:00etara, Foruen plazako eszenatokiaren alboan.

Udalak jakinarazi duenez, parte hartu nahi dutenek Turismo Bulegoan egin dezakete izen-ema-

tea, baita 943 19 24 52 zenbakira deituta edo turismoa@deba.eus helbidera idatzita ere. Lehiaketan banaka nahiz taldeka parte hartu ahaliko da eta moztorroen gaia librea izango da; hamar sari daude jokoan. Udalaren webgunean ikus daitezke oinarriak.

Desfilea Agirre jauregian hasiko da, 12:30ean, eta Foruen plazan amaituko da. Bertan egingo dute moztorro lehia. Epaimahai batek eta herritarrek erabakiko dute, bozketa bidez, sariak nori eman; 19:30ean izango da ekitaldia, Foruen plazan.

Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia Esnaola

ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar

943 20 72 17 | 680 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

1ERSUNDI 14 DEBA

sasoiko

943 19 24 42

sasoiko@hotmail.com

[EKODENDA]

[RELARDENDA]

[FISIOTERAPIA]

INDIBA, DRENAGE LINFATIKOA, KIROL LESIOAK

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA

Hondartza kalea 13 DEBA

T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak

@adatsileak

ASKETA

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

943 19 19 52

asketa.net

ZALBURDI

Arakistain Plaza, 1

943 19 20 03 DEBA

Xabi Osa, hirugarren, Espainiako Snowboard Kopako lehen proban

Snowboarder debarrak lehen postua eskura izan zuen, baina azken uneko akats batek aukera guztiak zapuztu zizkion

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Espainiako Snowboard Kopako lehen proba jokatu zen aurreko asteburuan, urtarilaren 31n eta otsailaren 1ean, Baqueira Bereten, eta bertan parte hartu zutenen artean izan zen Xabi Osa debarra. Kemen Kirol Klubeko kideak snowboardcross modalitatean hartu zuen parte, kirol egokituko DPD kategorian, eta, hirugarren postua erdietsita, emaitza onarekin ekin dio txapelketari.

Aitortu duenez, gustura gerta da zirkuituko lehen hitzorduan

lortutako sailkapenarekin. Finalaren aurretik jokaturako hiru txandak irabazi zituen, eta azken lasterketan garaipena eskuratzeko aukera izan zuela ere azpimarratu du. "Lehen postuan hasi nuen lasterketa, baina azken bihurguneetako batean nire buruaz gehiegi fidatu nintzen; ondorioz, atzetik zetozen Jorge Gargallok eta Urko Egeak aurrea hartu zidaten", erantsi du.

Lehiatzeko gogoz

Espainiako Snowboard Kopako bigarren fasea otsailaren 28an



Xabi Osa, podiumean, eskuinean. 'RFEDI.ES' (FOTOTUR)

eta martxoaren 1ean izango da, Formigalen, eta finala, berriz, martxoaren 28an, Sierra Nevada.

Osak iragarri du bi proba horietan ere parte hartzeko asmoa duela. "Azken lasterketan egin-

dako akatsak ez errepikatzeko eta zirkuituan nire onena emateko asmoz noa; bide onetik noala uste dut", adierazi du. Erronka argia du: "Irabaztea da helburua; bestela, ez dut nire onena ematen pistan".

EHko Mus Txapelketaren kanporaketa, gaur, Deban

N.B.A. DEBA

Abian da herriz herri jokatzeko ari den Euskal Herriko XVII. Mus Txapelketaren lehen fasea, eta, hain zuzen ere, txapelketa Debara ere iritsiko da. Hitzordua gaur, otsailak 6, izango da, Zalburdi tabernan, 22:30ean hasita. Antolakuntzak musean jokatzeko zaletasuna duten guztiak gonbidatu ditu gaur gaueko kanporaketara. Gogorazi dutenez, beste herri batean bizita ere parte hartu ahal izango da norgehiagokan.

Izen ematea 20 euro izango da bikote bakoitzeko, eta gaur egin beharko da, kanporaketa hasi baino lehen. Gainera, afaria ere egongo da, nahi duten guztientzat; 30 euroren truke, Zalburdin bertan eskuratu ahal izango dira tiketak.

Urteroko dinamika

Txapelketaren dinamika urterokoa izango da, eta Federazioak ezarritako arauen arabera jokatu da. "Arauek eskura izango dituzue, baita webgunean ere", adierazi dute antolatzaileek. Kanporaketa amaitutakoan, sariak banatuko dira.

Gaurko irabazleek martxoaren 7an Antzuolan jokatu den Gipuzkoako finalerako txartela eskuratzeko aukera izango dute. Parte-hartzaile kopuruaren arabera, hiru bikotek lortuko dute txartela; bestela, bi bikote sailkatuko dira. Final nazionala martxoaren 28an izango da, Villabona-Amasan.

Bergarako 'Hala bazan!' ikuskizunean dantzatuko dute Kulunkako kideek

N.B.A. DEBA

Bergarako Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratus-teetako kontzertua egingo dute otsailaren 13an, 22:30ean, *Hala bazan!* izenburupean. Aurten ere Debako Kulunkako dantzariak ariko dira oholtzan, Alaitz Izaga dantza taldeko zuzendari eta irakaslearen gidaritzapean. Izagak azaldu duenez, hamalau urte daramatzate bertan parte hartzen.

Aurtengo emanaldiari dago-kionez, hemezortzi dantzarik parte hartuko dutela jakinarazi du taldeko zuzendariak. Musikal estiloko ikuskizunari egokitu-tako hiru koreografia "ikusgarri" aurkeztuko dituztela esan du:

"Nik sortu ditut hiru koreografia. Lehen kantua balada bat izango da, eta liriko estiloan egingo dugu dantza; beste biak jazz estilokoak dira".

Sarrerak

Hitzordurako sarrerak *seminarixoa.eus* atarian eta Seminari-xoa aretoko leihatilan daude eskuragarri, 8 euroren truke. Izagak azaldu duenez, oraindik badira sarrera batzuk, "baina oso gutxi geratzen dira"; beraz, azkar ibiltzea gomendatu du. Antolatzaileek ohartarazi dute pertsona bakoitzak gehienez sei sarrera erosi ditzakeela, eta guztiak salduz gero ez direla salgai egongo emanaldi egunean.

Itziarko Erromeria Eguna antolatzen hasteko bilera gaur

Maiatzaren hasieran ospatu ohi den Erromeria Eguna prestatzeko lanei laster ekingo diete Itziarren. Aurtengo hitzorduari begira proposamenak biltzeko asmoz, bilera irekita deitu dute Itziarko Auzo Udaleko eta Andutz Euskal Dantza Taldeko kideek. Zehazki, gaur, otsailak 6, izango da jaia prestatzen hasteko lehengo batzarra, Itziarko Burugorri eraikinaren lehen solairuan, 19:00etan.

Jaiaren bultzatzaileek maiatzaren 2an, larunbatez, ospatuko den festa herrikoia prestatzen laguntzeko interesa duten eragile, talde, elkarte eta norbanako guztiak gonbidatu dituzte gaurko bilerara.

Abian da 'Deba 100 hitzetan' literatur lehiaketaren X. aldia

Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak *Deba 100 hitzetan* literatur lehiaketaren hamargarren aldia jarri dute martxan, udalerriarekin lotura duten kontakizun laburren bidez sormena eta idatzizko adierazpena sustatzeko helburuarekin. Ohi bezala, lehiaketak bi modalitate izango ditu: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, alegia.

Lanak martxoaren 15eko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira, Turismo Bulegoan edo *turismoa@deba.eus* helbidera bidalita. Gogorazi dutenez, edonork hark dezake parte bertan, adin- edo bizileku-mugarik gabe. Oinarri guztiak *deba.eus* webgunean daude ikusgai.

ORTONTOLOGIA
MAITENA ARRIZABALAGA

ORTONTOLOGIA
NORA UNZETABARRENETXEA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz 943 830 424 - 653 921 712

ITURLAN, S.L.
Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - beheka | DEBA
635 717 732 / 943 192 553
fontaneria@iturlan.com

SAGARMIÑA

Hondartza kalea 3-4, DEBA
943 192 249
sagarmina.com

Zumardi
pentsioa

Tel: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
pensionzumardi.com

ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2 - DEBA

MENDIA

Goia jotzeke, hazten

Denboraldirako erronka eta helburuak adostu ditu CATT Morkaiko trail taldeak batzar orokorrean, eta taldera batu zaizkien lagun berriak aurkeztu zituzten, topaketa baliatuta

Asier Orbea ELGOIBAR

Iaz, hamaika lagun berri batu zitzaizkien taldera, eta bi gehiago aurten. 67 lagunek osatzen dute gaur egun: sei emakumek eta 61 gizonezkoak. Elgoibarkoak dira 47 taldekide eta Debabarrenekoak eta inguruko herrietakoak gainerakoak. Taldean sartu diren kide berriei ongietorria egin zieten batzar nagusian, eta denboraldi berrirako asmoak eta erronkak izan zituzten hizpide. Hemeretzi taldekide EFM Kopan lehiatuko dira, eta baita beste hainbat lasterketan ere.

Taldeko arduradun Denis Saiz eta Jose Luis Diez *Txelu* pozik daude taldeak bizi duen unearekin. "Hazten jarraitzen dugu, eta pozik eta harro gaude laguntza handia jaso dugulako; erakundeena, babesleena eta kolaboratzaileena. Guztiek merezi dute aipamena; babesleek: Nord-plastic 5.2, Kima, Carpinteria Imar, Morkaiko eta Rural Kutxa; eta baita laguntzaileek ere: LizagaSar, Ekom, Txarriduna Hotela, Astigarraga Gys Sport, Cimalp eta Elgoibarko Udala.

Kirol lorpenen errepasoa

2025eko kirol lorpenen errepasoa eta balorazioa ere egin dute; taldekideek podium ugari zapaldu zituzten iaz, eta horien artean bi azpimarratu dituzte: batetik, ultra lasterketan Euskal Herriko Txapelketan taldeka eskuratu zuten bigarren postua; eta, bestetik, lasterketa bertikalen Euskal Herriko Txapelketako taldekako hirugarren postua. Banakako lehia ere nabarmendu ziren Morkaiko lasterkariak: Alazne Lozanok irabazi zuen Euskal Herriko Kopa, gazte mailan, eta, gainera, Lozano bera gailendu zen Sorginen Lasterketa proban jokoan egon zen Eus-

kadiko Txapelketan ere. Bi taldekide veterano ere igo ziren Kilometro Bertikalen Euskal Herriko Kopako podiumera, biak txapeldunorde: Iñaki Egizabal Master B kategorian eta Iñigo Lariz Master A kategorian. Azkenik, Mikel Arriola laugarren postuan sailkatu zen lineako Euskal Herriko Kopako azken sailkapenean. Iazkoaren balorazioa egiterakoan, Karakate mendian erronka pertsonalak egin zituzten bi taldekide aipatu eta goraipatu dituzte: Karakatera 101 aldiz jarraian igo zen Jose Luis Diez *Txelu* eta 2025ean Karakatera 365 igoera egin zituen Iban Fernandez.

Asmoak eta berrikuntzak

Hastear den 2026ko mendi lasterketen denboraldirako iazko asmo eta helburu berberei eusten dietela adierazi dute: "Euskal Herriko eta urrunagoko era guztietako mendi lasterketan gure taldearen izena zabaltzen jarraitzea da gure nahia". Horrez gainera, urteroko probak antolatuko dituzte: Elgoibarko Mendi Itzulia, Karakateko Igoera, Lizagasaren erronka eta San Silvestre lasterketa. Beste proba bat antolatzeko lanean ari direla ere aurreratu dute: "Denbora darabagu proiektu horretan lanean, eta gustatuko litzaiguke aurten egin ahal izatea. Auzoen Liga deituko dela aurreratu dezakegu, momentuz".

"Taldeak hazten jarraitzen du, eta harro eta pozik gaude laguntza jaso dugulako"



CATT Morkaiko osatzen duten hainbat taldekide, Aita Agirreko harmailetan. CATT MORKAICO

ZINEMA

Zazpi film laburrekin osatu dute martxoan egingo den Laburbira zirkuitu ibiltaria

Otsailaren 28an amaituko da herrietan emanaldiak antolatzeako eskaera-epea

Izaro Aulestiarte DEBABARRENA

Martxoaren 1etik 29ra bitartean egingo da Laburbira film laburren zirkuituaren 23. aldia. Aurten 32 lan aurkeztu dituzte, eta horietatik zazpi aukeratu dituzte, jendeak herriz herri ikus ditzan.

Taupa Euskaltzaleen Mugimenduko kideek nabarmendu dutenez, "orotara, 80 minutuko film-labur sorta ederra" osatu dute, "ikusleei ahalik eta emanaldi aberasgarriena eskaintzeko asmoz. Askotariko lanak aurkitu daitezke bertan, edukiz zein estiloz, eta horietako batzuk dagoeneko hainbat jaialditan saritu dituzte". Amaia San Sebastianen *Olentzerori eskatu nion* lanak, adibidez, iazko Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Astearen film labur onenaren EITB saria irabazi zuen. Aitor Gametxoren *Geratzen den hori* lanak, berriz, Espainiako



Irati Iciar, Taupako lehendakaria; eta Martin Aramendi, UEMAko lehendakaria. UEMA

Estatuko film labur onenaren saria jaso zuen Zinebi jaialdian.

Izen-ematea, zabalik

Aurtengo bilduma aurkeztearekin batera, emanaldiak antolatzeako eskaera epea ere zabaldu

du Taupak. Izen-ematea Internet bidez egin daiteke, *laburbira.taupamugimendua.eus* webgunean, otsailaren 28ra arte.

Laburbira ekimen ibiltaria da eta edozein herritan antolatu daiteke. Ikus-entzunezkoen ema-

naldien ondoren, nahi izanez gero, filmen zuzendarietara solasaldiak antolatzeako aukera ere eskaintzen dute, "sortzaileen eta ikusleen arteko harremana errazteko eta sendotzeko asmoz".

Aurten, gainera, euskarazko film laburren zirkuitua ahalik eta herri gehienetan eskaintze aldera, elkarlanerako hitzarmena sinatu dute UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Taupak. Horri esker, emanaldi bat antolatzeako eskaintza berezia izango dute UEMAko kide diren 120 udalek; tartean daude Mendarokoa, Mallabikoa eta Debakoa.

"Erreferentziako erakusleiho"

Bi helburu nagusi ditu Laburbirak: euskal zinemagintza hauspotzea, batetik, zinemagileei beren lanak erakusteko aukera emanez, eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea, bestetik. Bada, bi markada baino gehiagoko bidean bi xede horiek "sobera bete" dituztela uste dute arduradunek, beren hitzetan, "23 urteotako ibilbide arrakastatsuan euskal zinemagintzaren erreferentziako erakusleiho bihurtu baita Laburbira".

80 minutuko sorta dakar aurtengoak

2025ean ekoizitako zazpi lan izango dira ikusgai:

'Olentzerori eskatu nion'

Amaia San Sebastian Larzabal.

'Erreka zoko hortan'

Ekaitz Bertiz.

'Fishy'

June Asua Olabarria.

'A-maniki'

Elixabet Nuñez.

'Geratzen den hori'

Aitor Gametxo Zabala.

'Orain zer?'

Ainhua Urgoitia.

'Hortzikara'

Ane Cuesta.

I.A. DEBABARRENA

Korrikaren gorazarrea jaso du Errigorak, "euskaratik, euskararentzat eta euskaraz" egiten duen lanarengatik. Errigora da, hain justu, 24. Korrikako omendua, eta, joan den larunbatean, urtarrilaren 31n, AEK-k aitortza egin zion Durangoko Plateruenan.

AEK-ko Nazio Kontseiluko kide Xabi Gartziak ekitaldian azpimarratu zuenez, hiru ardatz ditu Errigorak: euskara, auzolana eta elikadura-burujabetza. "Aterpe irekia eskaintzen die Ager eremuko herritarrei eta euskalgintzari, Euskal Herri osoko kontsumitzaileei eta ekoizleei. Alegia, 24. Korrikaren leloaren [Euskara gara] adibide ezin hobea da Errigora". Gainera, Gartziaren hitzetan, bada beste antzekotasun bat Errigoren eta Korrikaren artean: "Errigora eskuz esku, fisikoki eta natural zabaltzen da, Korrikaren lekukoa bezalaxe".

Segidan, Ane Elordi Korrikaren arduradunak hartu zuen hitza. AEK-k eta Errigorak "printzipioetan bat" egiten dutela esan zuen zornotzarrak: euskararen sustapena eta burujabetza. "Helduen euskalduntzea dugu



AEK-ko, Korrikako eta Errigorako ordezkariak, Durangon. A. ARROITA / AEK-KORRIKA

EUSKARA

Atharratzetik Bilbora, Euskal Herri osoan, Errigora omentzeko dei egin du Korrikak

Errigora da 24. Korrikako omendua, eta aitortza ekitaldia egin berri dio AEK-k

erronka eta helburu, eta alor horretan ere bidelagun dugu Errigora", adierazi zuen.

Era berean, dei egin zion jendarteari martxoaren 19tik 29ra, Atharratzetik Bilbora, Euskal Herri osoan, Errigora omentze-

ko eta hauspotzeko. "Nafarroan, euskara ofiziala ez den eremuan, 24. Korrikaren bitartez, Errigorak euskalduntzean egiten duen ahalegina aintzatesteko era izango da, baita etorkizunerako bultzada emateko hauspoa ere".

Esker oneko azaldu ziren Adriana Urmeneta eta Irati Abio, Errigorako kideak. "Eskerrak eman nahi dizkiogu Korrikari, bere 24. edizio honetan Errigoren lana omentzeagatik. Eki- men gutxi daukate urtetik

urtera herri honen grinari bizirik eusteko gaitasun magiko hori, eta, dudarik gabe, Korrika da horietako bat da. Eta, nola ez, Errigorako kideongan ere eragiten ditu bizipoz eta harrotasun horiek edizio orotan".

Bestalde, ekitaldian *Orburutxo* eta *Zainzuriñe* panpinak aurkeztu zituzten. Aurreratu zuten Korrikak iraun bitartean bi pertsonaia horiek non dauden identifikatzen dutenek "sorpresaren bat" izango dutela.

Eskutik Eskura kanpaina, aurki

Otsailaren 26tik martxoaren 18ra egingo da Errigoraren Eskutik Eskura kanpaina, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko baratze-ko produktuak Euskal Herriko milaka etxetara eramateko asmoz. Herritarrek oliba-olio birjina estra, ardoak eta arroz-, pasta-, lekale- eta kontserba-sortak eskatzeko aukera izango dute *errigora.eus* webgunean, betiere ekoizlearen jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta.

Debabarrenen hainbat eragilek babestuko dute ekimena. Beraz, produktuak eskualdeko hainbat herritan jasotzeko aukera izango da oraingoan ere.



Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 1994an berreskuratu zuen baserrietako santa eskea. ASIER ORBEA

SANTA AGEDA EGUNA

Kantura eta eskera irten dira dozenaka lagun Santa Ageda bezperan

Asteburuan ere egingo dituzte santa eskeak Debabarrenean

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR
Santa Ageda eguna izan zen atzo, eta, ohiturari jarraituz, kopia kantari irten ziren bezperan eskola-umeak eta beste hainbat talde Debabarrenean: Ermuan, Soraluzen, Elgoibarren, Mendaron, Itziarren eta Deban egin zituzten Santa Agedaren omenezko kalejirak. Ikasleez

gain, baina, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartekoak ere aritu ziren eguaztenean kopia kantuan. 1994az geroztik irteten dira otsailaren 4an, eta, bi taldetan banatuta, herriko baserri-auzoak koplazten dituzte. Neguko festen barruan kokatzen dute Euskal Herrian ekimen hori, eta makilekin

lurra joz naturaren esnatzea irudikatzen da. Horrez gain, baina, diru eskea ere lotu zaio festa horri, eta sasoi batean herriko familia behartsuei banatzen zieten kopia kantuan batutako dirua. Gaur egun, herriko elkarteendako eskatzen dute dirua. Argazki guztiak: *barrena.eus*.



Bi taldetan banatuta koplatu zituzten Elgoibarko baserri-auzoak. ASIER ORBEA



Elgoibar Ikastolakoak, kantuan eta eskean. AINHOA ANDONEGI



Debako Luzaro ikastetxeakoak, Plaza Zaharrean. ALEX TURRILLAS



Itziarko ikasleak kopia kantari. ITZIARKO ESKOLA



Soraluzeko musika eskolako umeak. UBANE MADERA



Ezoziko Ama abesbatzakoak. UBANE MADERA



San Lorenzo eskola: 5. eta 6. mailetako ikasleak. DORLETA VIDAL



1., 2. eta 3. mailetako ikasleak, Alboka Musika Eskolako trikitilariak lagunduta. DORLETA VIDAL



Mendaroko haurrak, txokolategiko atarian, kantuan. AINARA ARGOTIA



Mendaroko eskola-umeak, udaletxe aurrean, koplakantuan. A. ARGOTIA

Asteburuan, koplak gehiago

Debabarrenean ere eztarriz sano dabilta herritarrak, eta bihar, otsailak 7, irtengo dira herri askotan kantura eta eskera. Mallabian, esaterako, Mendibil abesbatzak egin du kanturako deia, eta Jubilatuen aurreko aparkalekutik abiatuko dira, bihar, 10:00etan.

Soraluzen, bestalde, 35. urtez irtengo dira santa eskekoak baserriz baserri. Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eneko Beretxinaga ibiliko dira koplari lanetan, eta Unai Larreategik joko du soinua. Kontzejupean batuko dira, 08:30ean.

Mendaron urtero legeaz egingo dute biharko koplakantua. 08:30ean abiatuko dira, Herriko Enparantzatik, hiru taldetan banatuta: Sahatzu mendiko baserriak eta Azpilgoeta auzoa koplaturako dituzten talde batek; Aranerreka eta Garagartza aldea bigarrenak; eta Mendarozabal hirugarrenak. Ameikutz musika eskolako trikitilariak jarriko dute musika, eta sei lagunek jardungo dute koplari: Beñat Lizaso, Iñigo Zubiaurre *Beitxi*, Aitor Zubikarai, Amaia Agirre, Unai Mendizabal eta Txeber Altube.

Elgoibarren Etxegiña taldeak egin du biharko kantaldirako deialdia. Iaz bete zituen 100 urte taldeak, eta ospakizun urtea izan zuten, baina aurten ohiko eskera itzuliko dira. 09:00etan batuko dira, Bolatokian. Bi taldetan banatuta koplaturako dituzte udalerriko auzoak, eta 11:00 aldera mokadutxo hartuko dute Urazandiko La Union elkartearen. Handik San Lazaro egoitzara joango dira, eta hainbat koplak eskainiko dizkiete hango egoiliarrei. Kaleak zeharkatu ostean, Errosario kaleko Ama Birjinaren aurrean salbea kantatuz emango diote amaiera ekimenari. Azken urteotan bezalaxe, Iñigo Legorburu izango da koplaria, eta soinu-joleak, berriz, Anabel Arrizabalaga, Aitor Urain eta Leire Zaldúa. Batzen duten dirua Caritas elkartearentzat izango da.

Ermuan, domekan
Ermuan 33 urtean eutsi diote santa eskeari, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Orain artean Santa Ageda bezperan irten izan dira, baina aurten domekan egingo dute kalejira. 11:00etan abiatuko dira Abeletxe Nagusien Egoitzatik, eta jarraian ohiko kalejira egingo dute.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK
Elgoibar. Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo ebeko langile moduan. Asteaz zehar ere arratsaldez pare bat orduz egingo nuke lan. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa dut. 643 58 41 98

Elgoibar. Zerbitzari lanetarako prest nago. Esperientzia eta formazioa ditut. 652 33 31 06

Elgoibar. Zerbitzari lanetarako prest nago. Ostalaritzan formatua naiz, eta esperientzia daukat. 691 14 98 79

Zainketa lanak. Asteaz zehar goizetan bederatzia arte eta arratsaldez haurrak eta adineko pertsonak zaindu edo ebeko garbiketak egingo nituzke. Neska arduratsua naiz eta hiru arlo horietan esperientzia dut. Horrez gain, erizain laguntzaile titulatu naiz, eta Haur Hezkuntzako graduak azken mailako ikaslea. Ez izan zalantzarik nirekin harremanetan jartzeko. 664 29 58 71

ESKOLA PARTIKULARRAK

ESKAINTZAK

Eskola partikularrak Elgoibarren. HHko ikaslea naiz eta euskarako C1 titulua daukat. LHko edozein mailatako ikasleei euskara edo laguntza behar duten arloetan eskolak emateko prest nago, baita arratsaldeetan umeak zaintzeko ere. Haurrekin lan egitea gustuko dut, eta ikaskuntzan laguntzeko motibazioa dut. Kontakuturako, hona hemen nire zenbakia: Pello, 688 67 69 68

Ikaskuntza zailtasunen aurrean esku-hartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakaslea naiz. Entzumenean eta mintzamenean espezializatua. Gainera, logopedia eta hizkuntza nahasmenetuetan ere aditua naiz. Saio indibidualizatuak eskaintzen ditut ikaskuntza zailtasunen espezifikoko lantzeko behar bereziak dituzten haurrentzat, metodologia aktiboaren bidez. Horrez gain,

haurrek euskararekin harreman baikorra sortzeko euskarazko saioak ere eskaintzen ditut eta azterketa ofizialak lantzen ditut, HABEko aztertzaila bainaiz. Edozein zailtza, deitu eta galdetu lasai. Ane 684 14 95 54

ETXEBIZITZAK

EROSI
Soraluze. Baserrira erosi nuke Soraluzen edota inguruan. Onintza. 630 72 17 58

ERRENTAN HARTZEKO

Alokairuan hartzeko baserri bila nabil Soraluze, Osintxu... Inguruetan. Hutsik eta zahartuta dagoen baserri baten zaintza eta ondo jartzeko tratua egiteko prest ere egongo nintzateke. Nire asmoa baserria txukun jarri eta bertatik bizitzeko apustua egitea da. Ortu handi bat jarrita lehenengo, eta gero, posible bada, animaliak hartuta. Orain momentuan baserri batean bizi naiz, San Pedro bailaran, eta badaukat baserrirako abildadea. Gazteok baserri mundura joateko daukagun zailtasuna kontuan hartuta, eskertuko nuke laguntza apur bat. Asier. 688 64 27 61

ANIMALIAK

OPARI
Txakurkumeak opari. Ama border collie bat duten txakurkume emeak opari. 690 15 46 44

DENETARIK

SALDU
Haurren sehaskarako lastaira eta izara jokoa 12 euroan. 120x60 cm, estreinatzeko. 696 40 30 96


Haurren lotarako zakua 15 euroan. 120x60 cm, hiru aldiz erabilia. 696 40 30 96

Mendiko Salomon botak 60 euroan salgai. Neurria: 43-44. Behin bakarrik erabilia. Salomon Ex Alp Mid Ltr Gtx Poseidon modelo, Goretex eta Ortholite plantillarekin. 696 40 30 96

ZORION AGURRAK



ERMUA
Elaia
Zorionak, Elaia, otsailaren 12an 5 urte beteko dituzulako. Aurtan, Ermuko plazan ospatuko dugu! Muxu pila bat, etxekoan partetik.



ELGOIBAR
Jakes
Zorionak, Jakes, familia guztiaren partetik. Espero dugu ondo pasatuko zenuela zure eguna! Muxu handi bat, denon partetik.



DEBA
Lea
Zorionak, Lea. 2 urtetxo. Asko maite zaitugu. Etxekoan partetik



ELGOIBAR
Sare eta Auritz
Zorionak, Sare eta Auritz. Datorren asteartean 9 urte beteko dituzuelako. Jarraitu beti horren alai. Maitasun eta muxu bikoitza, etxekoan partetik.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 655 658 zenbakira, eta zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Iragarkia jartzeko

943 744 112
barrena@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiro iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.



Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure garaje komunitateko jabeak batzuek trastelekuak egin nahi dituzte marraz zedarritutako euren garaje-plazetan. Jakin nahiko nuke ea garajeak itxi ditzaketan. Jabetza Horizontaleko Legean jasota dago solairu berriak eraikitzeko edo eraikinaren kanpoaldeko konfigurazioa aldatzeko aukera. Horren barruan sar ditzakegu, beraz, terrazak ixtea. Halakoak egiteko, baina, baimen administratiboa behar da. Hau da, ezinbestekoak dira obrarako Udalaren baimena eta egin beharreko eskatutako baimen horretara lotzea eta jabetza pribatu berriak ez sortzea. Horrez gain, komunitatearen onespina ere behar da, jakina. Garajeak ixtea garajeen jatorrizko konfigurazioa aldatzearen barruan ulertu behar da, eta, beraz, jabeakideen batzarrak onetsi behar du obra hori. AHOLKUA: Obra hori egin ahal izateko, Udalaren baimena izatea ezinbestekoa da, eta komeni da gogoraztea zenbait udalerritan debekatuta dutela garaje-plazak ixtea.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ELGOIBAR

Milagros Oiartzabal Osoro

Luis Bilbao Galarragaren alarguna
2026ko urtarrilaren 31n hil zen, 93 urte zituela.

Izan zarena
erakutsi duzun kemena
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena

Familiaren izenean eskerrik asko egun hauetan
gure ondoan egon zareten guztioi.



ELGOIBAR

Pepita Armendia Begiristain

Enrique Perez Perezen alarguna.
2026ko urtarrilaren 29an hil zen, 97 urte zituela.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Familia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana.



SORALUZE



Txaro Lete Lacuesta

2026ko urtarrilaren 6an hil zen.

Urte zaharrak alde egin du,
berriarekin batzera,
denbora aurrera doa,
ez du egiten atzera,
bizitzaren erlojua
bide beretik antzera,
jardunaren jardunean
egiten dugu aurrera.

Hastearekin batera
badatorkigu amaiera,
hori da denon patua,
nahi ta nahiezko irteera,
Txaro lagun-min kuttuna,
zauden tokian zaudela,
lurrak goxo har zaitzala,
merezi duzun bezela.

Zure Gabolatseko lagunak

ELGOIBAR

I. urteurrena

Jose Osoro Aramberri

'Pitis'
2025eko otsailaren 5ean hil zen, 85 urte zituela.

Zure betiko irribarrea eta zure bihotz handia
gurekin izango da betirako.

Etxekoak



ELGOIBAR

XII. urteurrena

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.

Etxekoak



ELGOIBAR

XII. urteurrena

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

Utziguzu kontatzen zer ederra den zu gogoratzea,
utziguzu kontatzen irribarren artean,
Utziguzu kontatzen zer ederra den jakitea
maite zaitugula zeruaren beste aldean.

Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak



Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEO EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eua

OSTIRALA 6

- **ERMUA Pintura erakusketa: M. Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 12:00etan.
- **DEBA Odol ematea** Ifar kaleko Luzaro eskolan, 16:30etik 20:30era. Antolakuntza lanak errazteko, ezinbestekoa da aurrez hitzordua hartzea.
- **ERMUA Txirrindularitzari ekiteko saioa** Orbe Kardinala plazan, 17:00etan.
- **ERMUA Gurasolagun irekia** Hartza Eguneko kalejiran erabiltzeko moduko osagarriak egingo dira. 4 eta 8 urte bitarteko umeei eta haien gurasoei zuzenduta. Lobiano Kulturgunean, 17:15ean.
- **DEBA 'Zu hurrengo - En la diana' erakusketa** Debako Udaleko Bizikidetza batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 17:30etik 19:30era.
- **ERMUA M8 Asanblada irekia** Ermuko mugimendu feministak antolatuta. Emakumeen Topalekuan, 18:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Euskal Aratosteak ezagutzen'** Kiroldegiko

- erakusketa gelan, 18:30ean.
- **ELGOIBAR Pirograbatuen arte erakusketa** Xabier Isastiren pirograbatuen arte erakusketa. Aita Agirre kulturguneko erabilera askotariko aretoan. Asteazkera, 18:30etik 20:30era. Larunbatean, 12:00-14:00/18:30-20:30. Igandean, 12:00-14:00.
 - **ITZIAR Erromeria Eguna antolatze biler**a Burugorri eraikineko 1. solairuan, 19:00etan.
 - **ELGOIBAR 'Trajea' antzezlan**a Herriko Antzokian, 19:00etan.
 - **ERMUA Kontzertua: Norbac** Karikato tabernan, 20:00etan.
 - **ERMUA Puño Dragonen kontzertua** Rock alternatiboko Asturiasko talde bat da. Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
 - **DEBA Euskal Herriko Mus Txapelketa** 22:30ean, Zalburdi tabernan –izen-ematea unean bertan, 20 euro bikoteko–. 21:00etan, afaria izango da Zalburdin bertan. Menua: 30 euro.

LARUNBATA 7

- **ERMUA Mendi irteera: EHZ 15** Bi ibilbide aukeran.

Artarrai Mendi Taldeak antolatuta. Doako ekintza. Autobusa Agirre Kirolak dendatik irtengo da, 07:00etan.

- **DEBA Debako Merkatu Txikia** Udaletxeko arkupeetan, 09:00etatik 13:30era.
- **ELGOIBAR Ahalduntze saioa, gurasoentzat** 0-5 urteko umeak dituzten gurasoentzako ahalduntze saioa eskainiko du Ane Ablanedo pedagogoak. Atxutxiamaiak antolatu du saioa, Familia Programaren barruan, Udalaren laguntzarekin. Aita Agirre areto nagusian, 10:00etan.
- **DEBA 'Zu hurrengo - En la diana' erakusketa** Debako Udaleko Bizikidetza batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 12:00etatik 14:00etara.
- **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 12:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Euskal Aratosteak ezagutzen'** Kiroldegiko erakusketa gelan, 12:00etan.
- **SORALUZE Euskal Herriko Mus Txapelketa** Arrano elkartearen, 16:00etan.
- **ERMUA 'Amama' ikuskizuna** Aukeran Dantza Konpainiak ipuin tradizional zaharren irakurketa berritua eta koreografia berriak eskainiko ditu. Sarrera: 6 euro. Ermua Antzokian, 17:00etan.

Inauteriak

LARUNBATA 7

DEBA Kaldereroen kalejira Hiru geldiuine egingo dituzte: Berasaluze plaza –pregoia, abesti eta dantzak–, Plaza Zaharra –pregoia, abesti eta dantzak– eta Foruen Plaza –emanaldi nagusia–. Agirre jauregiko plazatik, 19:30ean.

OSTEGUNA 12

ERMUA Oilarraren jokoa Orbe Kardinalaren plazan, 16:00etan.

DEBA Musika Eskolako kalejira Kalejiraren ondoren, txorizo egosia eskainiko zaie musika eskolako ikasle guztiei. Musika Eskolatik abiatuta, 17:00etan.

ERMUA Disko-festa: DJ Xaibor Orbe Kardinalaren plazan, 17:30ean.

ELGOIBAR Ostegun Gizona Musika Eskolako ikasleek eta txarangak kaleak alaituko dituzte. Jarraian, Maalako parkean, musika eta dantzak Musika Eskolako Bandarekin eta Koruarekin batera. Amaieran, kalejiran bueltatuko dira Musika Eskola aurrera. Musika eskolan hasita, 18:00etan.

ERMUA 'Ermuan kantuan' kalejira Plazan, 19:00etan.


SORALUZE Galtzagorri txaranga Herrigunean, 19:00etan.

ELGOIBAR Sinuoserren 30. urteurreneko kontzertua Kultu Etxeko erakusketa gelan, 19:00etan.

OSTIRALA 13

MENDARO Mendaro ikastolako Inauteriak Eguraldi ona egiten badu, kalera irtengo dira kalejiran, eta bukaerako jaialdia ikastolan egingo dute. Kalez kale, 10:00etan.

ELGOIBAR Euskal Inauteriak Elgoibar Ikastolak antolatuta, kalera irtengo dira ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak, euskal Inauteria antzeztera.



ASIER ORBEA

Santa eskeak

LARUNBATA 7

MENDARO Herriko baserri-auzoak eta kalea koplatuko dituzte. Hiru taldetan banatuko dira. Ondoren, Aizpen bazkalduko dute denek elkarrekin. Herriko Enparantzan, 08:30ean.

SORALUZE Santa eskean aterako dira baserrietara. Kontzejupean, 08:30ean.

ELGOIBAR Etxegia taldekoak kalez kale

ibiliko dira kantu-errondan. Elgoibarko Herri Eskolako LH5eko ikasleak Etxegiañaren taldera batuko dira. Bolatokian, 09:00etan.

MALLABIA Santa Ageda kalejira. Petrilean, 10:00etan.

IGANDEA 8

ERMUA Santa Ageda kalejira. Irteera Abetxetxe Egoitzatik, 11:00etan.



ASIER ORBEA

IGANDEA 8

• **DEBA 'Zu hurrengo - En la diana' erakusketa** Debako Udaleko Bizikidetza batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 12:00etatik 14:00etara.

• **ERMUA Zaldibar Argitu: 6 urte** Elkarretaratzea Eitzagan, 12:30ean.

• **ELGOIBAR 'Xirribit' ipuin musikatua** Euskal Barrok Ensembleko musikarien eta Maika Etxekopar kontalariaren eskutik. Inazio Bereziartua musika eskolako abesbatzak eta Atxutxiamaiak parte hartuko dute. Herriko Antzokian, 16:30ean.

• **DEBA Ipuin kontaketa saioa** Ispiluen gelan, 17:30ean.

• **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

ASTELEHENA 9

• **DEBA 'Zu hurrengo - En la diana' erakusketa** Debako Udaleko Bizikidetza batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 17:30etik 19:30era.

• **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako

sarrera. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

• **SORALUZE Erakusketa: 'Euskal Aratosteak ezagutzen'** Kiroldegiko erakusketa gelan, 18:30ean.

ASTEARTEA 10

• **SORALUZE Munduko ipuinen ziklo herritarra: Saadia Nasir** Udal Liburutegiak eta Pil-Pilean euskaltzaleen elkarteak elkarlanean antolatuta. Udal Liburutegian, 17:00etan.

• **ELGOIBAR Zaintzari buruzko tailerra** Merlin Medinak gidatuko du. Lila Emakumeen Etxean, 17:00etan.

- **DEBA 'Zu hurrengoa - En la diana' erakusketa**
Debako Udaleko Bizikidetzat batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 17:30etik 19:30era.
- **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

ASTEAZKENA 11

- **ERMUA Emakume zientzialarien omenezko tailer zientifikoak**
Bizikidetzat batzordeak antolatuta. Herritar guztiei eskainitako tailerrak egingo dira. Plazan, 17:00etan.
- **ELGOIBAR 'El arte de ayudar y ayudarse a si mismo' hitzaldia**
Elgoibarko Nagusilan Elkartek 25 urte bete zituen 2025ean, eta urteurren horren ekintzen barruan antolatu dute hitzaldia. Albertina Fernandez Franganillok emango du. Herriko Antzokian, 17:00etan.
- **DEBA 'Zu hurrengoa - En la diana' erakusketa**
Debako Udaleko Bizikidetzat batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 17:30etik 19:30era.
- **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.
- **ERMUA Korrika batzordea** Euskaltzaleen Sareak deitutako bilera

irekia. Kaltxango AEK Euskaltegian, 18:15ean.

OSTEGUNA 12

- **DEBA Ibilaldia: Zarautz-Getaria-Askizu-Zumaia**
Arbil Elkarte Sozialak antolatutako ibilaldia. Tren geltokian, 08:40ean.
- **ELGOIBAR Nagusilaneke boluntarioei omenaldia.**
Jubilatu Biltokian, 11:00etan.
- **SORALUZE Itxaropenaren batzar nagusia**
Jubilatu etxeke tabernan, 17:15ean.
- **DEBA 'Zu hurrengoa - En la diana' erakusketa**

Debako Udaleko Bizikidetzat batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 17:30etik 19:30era.

- **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

OSTIRALA 13

- **ELGOIBAR Odol ateratzea**
Txanda hartzeko: *gotatanta.eus*. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **DEBA 'Zu hurrengoa - En la diana' erakusketa**

Debako Udaleko Bizikidetzat batzordeak antolatuta. Agirre Jauregiko erakusgelan, 17:30etik 19:30era.

- **ERMUA Pintura erakusketa: Isabel Garcia Vicente** Doako sarrera. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Euskal Aratosteak ezagutzen'**
Kiroldegiko erakusketa gelan, 18:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

6 BARIKUA Oruesagasti / H. Burgoa / M.I. Ugarte

7 ZAPATUA Barrenebxea / H. Burgoa / A.M. Baz / *M. Alves

8 DOMEKA Barrenebxea / H. Burgoa / A.M. Baz

9 ASTELEHENA Soto / Lasuen-Elezgaray / M. Alves

10 MARTITZENA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri

11 EGUAZTENA Arriola / Lasuen-Elezgaray / A.Alcala

12 EGUENA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / M.I. Ugarte

13 BARIKUA Yudego / L. Apraiz / A.M. Baz

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00

Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00

Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

• **Egunez:** 09:00-22:00

• **Gauetz:** 22:00-09:00

Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)

• **Larunbatak:**

Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00

Deba-Mutriku: 09:30-13:00

Ermua-Mallabia: 09:00-13:30

• **Igandeak eta jaiegunak:**

Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

Deba: A. Zalduegi (Lersundi, 20 - 669 26 22 01)

Deba: H. Burgoa (Astillero, 2 - 667 33 88 90)

Elgoibar: Arriola (Santa Ana, 1- 943 74 01 40)

Elgoibar: Barrenebxea (Errosario, 26 - 943 74 12 77)

Elgoibar: Garitaonandia (Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77)

Elgoibar: Yudego (San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93)

Ermua: A.M. Baz (Zearkale 2 - 943 03 17 03)

Ermua: M. Alves (Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66)

Ermua: A. Alcala (Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54)

Ermua: I. Lecumberri (Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97)

Ermua: M.I. Ugarte (Goienkale, 11 - 943 17 05 26)

Mallabia: E. Arronategi (Mallazpi z/g - 943 17 24 14)

Mendaro: Fernandez (Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42)

Mutriku: Lasuen-Elezgaray (Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92)

Mutriku: L. Apraiz (Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97)

Soraluze: Soto (Rekalde, 1 - 943 75 16 38)

Soraluze: Oruesagasti (Kalebarren, 9 - 943 75 13 84)

ZINEMA

DEBA

KULTUR ELKARTEA

'Sirat'

Igandea, 8: 19:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

'Tres adioses'

Larunbata, 7: 17:00, 19:45, 22:30

Igandea, 8: 17:00, 20:00

Astelehena, 9: 19:30

'Nouvelle Vague'

Larunbata, 7: 19:45, 22:30

Igandea, 8: 20:00

Astelehena, 9: 19:30

'Frankie y los monstruos'

Larunbata, 7: 17:00

Igandea, 8: 17:00

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA

'Avatar, fuego y cenizas'

Larunbata, 7: 19:00

Igandea, 8: 19:00

Astelehena, 9: 21:00

'Kontinental 25'

(Ongarri zine-kluba)

Asteazkena, 11: 21:00

'Turno de guardia'

Ostirala, 13: 19:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA

'Rental Family'

Larunbata, 7: 19:30

Astelehena, 9: 20:30

'Hamnet'

Larunbata, 7: 22:00

Igandea, 8: 19:30

'Los guardianes del diente mágico'

Igandea, 8: 17:00

MENDARO

SAN AGUSTIN KULTURGUNEA

'Hartz-atzapar kanpamentua'

Igandea, 8: 17:00



Hartz-atzapar kanpamentua.



ZOZKETA

Eibarko Antzerki Jardunaldietako euskarazko antzezlanak ikusteko

16 sarrera



Parte hartu:
barrena.eus/zozketak

Barrena
BATZEN GAITUENA



AZKEN BERBA

Zu 'ondo', baina ondokoa?



NAIA AIZPURUA
ITAIAKO KIDEA

Despolitizazioa ez da kasualitatea, ezta balenaldir baten axolagabekeriaren ondorio hutsa ere. Sistema honek urteak daramatza amorrua desaktibatzen, kolektiboa ahultzen eta konformismoa normalizatzen.

"Indibidualismoa apurtzea premiatzkoa da"

Gure inguruan argi ikusten da: gazteen bizi-baldintzak okertzen ari dira, baina badirudi ezerk ez gaituela interpelatzen.

Indibidualismoa gero eta zabalduago dago. Norberaren bizitza, itxuraz, behintzat, egonkorra bada, zertarako begiratu ingurura? Zer axola du bizilaguna etxegabetzen badute? Zer axola lagun batek alokairua ordaindu ezinik jarraitzen badu, edo emantzipatzeko aukerarik ez badu? Zer axola du lan-baldintza prekarioak normalizatu badira edo aisialdia gero eta garestiagoa bada?

Logika horrek bakoitza bere burbuilan uzten du, inguruan gertatzen denari muzin eginez. Sistema honek ez du salbuespenik; ezer egiten ez dugun bitartean, bizi-baldintzak okertzen ari dira, eta ondorioak gero eta larriagoak dira.

Horren aurrean, konformismoari aurre egitea eta indibidualismoa apurtzea premiatzkoa da. Kaleak berreskuratu, ondokoa interpelatu, sare kolektiboak ehundu eta borrokari forma eman behar diogu, antolakuntzarik gabe zapalkuntzak irabazten jarraitzen baitu.

Oraina zer da, ez baldin bada etorkizun bat borrokan?

BUKATZEKO

Eibarko koko-dantzak, bertako Inauteri jaien arrastoari segika

Otsailaren 7an, koko-dantzak egingo dituzte Eibarko baserrietan eta kaleetan

Egoitz Unamuno Loidi EIBAR

Bihar, zapatua, Eibarko baserri-bideak eta kaleak kolorez, kantuz eta dantzaz beteko dira. 2008an lehen aldiz berreskuratu zutenetik, koko-dantzak eta koko-eskea ezinbesteko hitzordu bihurtu dira Eibarko egutegian, Inauteri jaiak jatorrizko ereduaren arrastoan eta herri-festa kutsuarekin ospatzeko.

Oier Araolaza Eibarko Kezka dantza-taldeko kideak azaldu duenez, koko-dantzak berreskuratzea urteetako dokumentazio lanaren fruitua izan da: "Bazeuden pista onak. Toribio Etxeberriak baditu bere lanetan esaldi adierazgarri batzuk; esaterako: *Hasi dira gazteak Karnabaletarako makila-dantza preparatzen edo Koko janzteko nahikoa da aurpegia belzte*". Horrez gain, topatu zituzten aipamenak herriko adinekoen ahozko ondarea batzeko lanetan, eta Eibarko kantuen liburuan ere jasota zegoen Inauterietako kantua: *Koko moko, saria bete moko, gibel gibel afaritxarako, dirua baneuka, patrikarako!*

"Ikusi genuen tradizio hartan bazegoela eske-erronda elementu bat oso ohikoa dena neguko festetan eta Inauterietan. Joan ginen puzzleko pieza mordoxka bat batzen: eskea, dantzak, elementu sinbolikoak... Eta 2008an atera ginen". Musikalki ere berreskuratu dute "inguru hauetan ahaztuta zegoen formatu bat, trikitia, panderoa eta dultzaina uztartzen dituen".



Koko-eskea, Eibarko baserrietan, 2025ean. FELIPE LOIOLA - KEZKA DANTZA TALDEA

Identitatea, baserri-mundua eta festa eredu propioa

Araolazak argi du zein diren berreskuratutako festaren balio nagusiak. Lehena, herri eta kultura identitateari dagokiona: "Lortu da identifikazio bat gure Inauterietan, orain arte ez geneukana. Gaur egun, identitate aldetik Inauterietan asko funtzionatzen dute eta jendeak argazkia ikusten duenean badaki hori dela Eibarko Inauteria. Horrek sortzen du lotura bat herriarekin, kohesio bat eta sentimendu identitario bat".

Hiri-inguruaren eta baserriaren arteko hartu-eman da Araolazak nabarmentzen duen beste balioetako bat. Izan ere, Eibar urbanoa izan arren, inguruan 100 baserri baino gehiago ditu, eta, urtero, hautatutako zenbait baserritan egiten dute koko-eskea. Araolazaren

esanetan, "eskea aitzakia besterik ez da" kaletarren eta baserritarren arteko hartu-eman bideratzeko: "Festa baserri-etxeetara eraman nahi dugu, gure gazteek ere jakin dezaten non bizi diren beste eibartar batzuk, eta elkarrekin momentu bat ospatu".

Hain zuzen, festa beste modu batean egitearen balioa azpimarratu du Araolazak: "Oso kolonizatuta gaude. Dena da Tiktok, Instagram... Testuinguru horretan, gureak izan diren eta diren formak, sono-

"Lortu da identifikazio bat gure Inauterietan, orain arte ez geneukana"

ritateak, dantzak eta elkarrekin festa egiteko moduak mantentzea oso garrantzitsua da. Horrek antolaketa-lan bat eskatzen du. Festa herritarrok egiten duguna da. Prozesu horiek oso gozagarriak dira, baina bultzatu egin behar dira".

Plano sinbolikoa

Azkenik, plano sinbolikoa aipatu du: "Gaur egungo Inauterietan oso urrunduta gaude jatorrizko funtzio eta sinboloetatik. Euskal kultura eta Europako tradizioan Inauterietan lotu izan dira naturaren eta bizitzaren zikloekin, eta hori lotu da hartzarekin. Adibidez, gure aurrekoentzat Kandelaria Eguna zen hartza lozorrotik esnatzen zen eguna".

Koko-dantzak, beraz, ez dira dantza soilak, gure mundu-ikuskararen transmisioa egiteko bidea baizik.

Eguneko egitaraua

Koko-dantzek egun osoko egitaraua izango dute.

Baserrietako ibilia

- 09:00etan. Lehen agerraldia Errebalen, baserritarren postuetan.
- 10:00-14:00. Koko-eskea Otaola eta Mandiola auzoetako baserrietan.

Kaleko ibilia

- 18:45. Koko-mokoen elkartzea Toribio Etxeberria kalean. Kantuak eta dantzak Mauxitxa txarangarekin.

Barrena

BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

eduki bereziak, zozketak,
deskontuak, abantailak

**egin zaitez
Barrenakide!**